KIROLA: GAZTE MAILAKO GIPUZKOAKO XI KLASIKA ANTZUOLAN /11

Goienkaria

EGUBAKOITZA • 2005eko apirilaren 22a • V. urtea • 196. zenbakia • DOAN BANATZEKOA

Goienka2a

LORCA, 'LAUAXETA' ETA LEKUONA OMENDUAK

ARRASATE

Enplegua lortzen laguntzeko programa bideratuko dute /7

DANI LARREA / EMUN-EKO GERENTEA

"Euskararen normalizazioan, arlo sozio-ekonomikoa euskalduntzen dihardu Emunek" **/9**

ARETXABALETA

Emakumezko lehenengo udaltzaina aurki lanean /7

GOIENKARIA

Mendiko Bizkleta laterketa Arrasaten

Mendiko Bizikleta lasterketa jokatuko da domekan Arrasaten. Murugaingo magalean egongo da aurtengo zirkuitua, Olandixoko lurretan. Lasterketa 11:00etan hasiko dute, Ikerlango aparkalekuan, eta antolatzaileen esanetan 200 lasterkari inguruk hartuko du esku, horietako 20 emakumezkoak. Ibilbideak zazpi kilometro luze izango ditu. Bigarren urtez egingo dute Euskadiko Txapelketako lasterketetako bat Arrasaten. Eta ez hori bakarrik, domekako lasterketa Gipuzkoako Sari ere izendatu dute. Aurtengo proba, baina, berritasunekin dator, ez dutelako Musakolan egingo. **/10**

SAMINA ISTRIPUAN HILDAKO LAU GAZTEENGATIK

Hileta elizkizunak gaur Oñatin

Eguaztenean Elorregitik gertu auto istripuan hil ziren lau gazte oñatiarren aldeko hileta elizkizunak gaur egingo dira Oñatiko San Migel Goiaingeruaren parrokian. Juan Mari Uriarte Donostiako Gotzaiak gidatuko ditu elizkizunak.

Anjeles Iztueta sailburua ere han izango da, Oñatiko udaleko agintari eta beste hainbat hezkuntza agintarirekin batera. Oñatin hiru dolu egun izan dituzte eta Goi Eskola Politeknikoan ere egin dute. Lau gazteak Arrasatetik etxerantz zihoazen goizean eskolak hartu ostean. Ezbeharrak erabat hunkituta utzi ditu oñatiarrak eta debagoiendar guztiak. **/4**

Zapatuan inauguratuko dute Bergarako Osintxu auzoko zubi berria

Osintxuko zubi berria inauguratuko dute bihar, zapatua, eguerdian. Soraluce enpresaren aginduz, Altuna y Uria enpresak egin ditu lanak, 1,2 milioi euro inguruko aurrekontuarekin. Zubi berriak 35 metro inguru ditu. Biharko inaugurazio ekitaldian, Udaleko ordezkariez gain, Jesus Catania MCCko presidentea eta Rafael Barrenetxea Soraluceko gerentea izango dira. **/7**

OÑATI

Urrezko apaiz ezteiak domekan herriko hiru semek

Jesus Iturrospe Mujika, Migel Aranburu Korkostegi eta Jabier Etxeberria Arrese oñatiarrek 50 urte egin dituzte apaiz, eta domekan urrezko apaiz ezteiak ospatuko dituzte jaioterrian. Donostiako elizbarrutiak urtero egiten die omenaldia 50 urte apaiz betetzen dituztenei eta aurten hiru oñatiar hauek daude omenduen artean. **/7**

DEBAGOIENA/4-5 • HERRIZ HERRI/7 • IRITZIA/8 • KIROLA/10-11 • NON-ZER/16-17 • SAILKATUAK/18 • ESKELAK/19 • DENBORA-PASA/20 • TELEBISTA/22

GOIENKARIA
Egubakoitza / 2005eko apirilaren 22a

Txikia txukuna ere izan daiteke

■ Ibarrean ez da egiten 30 m²-ko etxerik, baina etxe txikietarako joera handitzen doa

■ Baldintza jakin batzuetan erabiliz gero, aldi baterako irtenbidea izan daitezke

LEIRE KORTABARRIA

Etxebizitzaren prezioa %16,19 igo zen iaz, eta Estatu osoan, garestien Euskal Autonomia Erkidegoan dira etxebizitzak: 2.523,98 euro metro karratuko. Guztiok ondo ezagutzen dugun etxebizitzaren arazoak bere horretan segitzen duela berresten duten datuak dira. Egoera horri aurre egiteko bide batek eztabaida sortu du egunotan. Miniapartamentuak, mikroetxebizitzak... 20-30 m² inguruko etxebizitzen berri jaso dugu.

Ez dira gauza berria: Debagoienean bertan badago 40 m²-tik beherako etxebizitzarik. Hala ere, orain proposatzen dena berria da: planteatzen zen halako etxebizitzak espreski egitea, eta babes ofizial erregimenean, alokairuan, zehazki esateko. Espainiako Etxebizitza Ministroak, Mª Antonia Trujillok, bota zuen ideia. Azpimarratu zuen "bakarrik edo bikotean bizi diren gazteendako aldi baterako" irtenbide moduan ikusten zuela.

EZ DIRA ERAIKITZEN

Debagoienean mikroetxebizitzarik ez da egingo, izan ere, etxebizitza eskumena Eusko Jaurlaritzak du, eta babes ofizialeko etxebizitzen hedadurak 36tik 90 m² bitartekoa izan behar du. Udalek gutxieneko neurria alda dezakete, baina gurean ez da neurri ohikoen azpitik eraikitzen. Eraikuntza-enpresei arrotza egiten zaie mikroetxeen kontua: "Nire ustez, jendeak gaizki hartuko luke, ez gaudelako ohituta hain etxe txikietan bizitzera", dio Egaralur enpresak. Bruesak Aretxabaletan etxebizitzak egingo ditu, eta 2-3 logelakoak izango

Eta polemika piztu zen

1. AIRE BERRIAK
Bartzelonan, Construmat etxebizitza aretoa egin dute, eta zenbait arkitektok APTM (30m2-ko apartamentuak) proiektua aurkeztu zuten.

2. ESPAINIAKO GOBERNUA
Mª Antonia Trujillo Etxebizitza Ministroak esan zuen aukera bat zela APTMak alokairu sozialeko etxe moduan eskaintzea.

3. ETA POLEMIKA PIZTU ZEN
PPk esan zuen ideia horrek gazteak "bigarren mailako hiritartzat" hartuko lituzkeela. Kataluniako gobernuak ere baztertu egin du.

4. ERKIDEGOAK
Trujillok esan zuen ez zuela neurria Etxebizitza Planean sartuko. Erkidegoek dute etxebizitza eskumena, eta ez dirudi bere egingo dutenik.

nolako ikasketak halako lana

MONDRAGON UNIBERTSITATEA

GOI ESKOLA POLITEKNIKOA

ARRASATEko Campusa
Lehen zikloa
• Industri Elektronikan Ingeniaritza Teknikoa.
• Sistemen Informatikan Ingeniaritza Teknikoa.
• Kudeaketa Informatikan Ingeniaritza Teknikoa.
• Industri Mekanikan Ingeniaritza Teknikoa.
• Industri Diseinuan Ingeniaritza Teknikoa.
• Telekomunikazioetan Ingeniaritza Teknikoa (Telematika eta Telekomunikazio Sistemak).
Bigarren zikloa
• Automatika eta Industri Elektronikan Ingeniaritza.
• Industri Antolakuntzan Ingeniaritza.
• Informatikan Ingeniaritza.
• Industri Ingeniaritza.
• Telekomunikazioetan Ingeniaritza.

GOIERRIko Campusa
Lehen zikloa
• Industri Mekanikan Ingeniaritza Teknikoa.

JARDUNALDI IREKIAK
ARRASATEko Campusa
943 71 21 92
• maiatzak 5, 17:30etan.
• 2. zikloa: maiatzak 26, 17:30etan.
• Biteri Ikastetxe Nagusia: ekainak 11, 11:00etan.

GOIERRIko Campusa
943 88 00 62
• apirilak 28, 17:30etan.

ENPRESA ZIENTZIEN FAKULTATEA

OÑATIko Campusa
Lehen zikloa
• Zuzendari Idazkaritza.
Ziklo luzea
• Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzan Lizentziatura.
- Finantza Zuzendaritza.
- Merkataritza Zuzendaritza.
- Erakundeen Kudeaketa.

BIDASOAko Campusa
• Enpresa Zientziatzan Diplomatura.
- Nazioarteko Merkataritza.
- Enpresa Logistika eta Garraioa.

JARDUNALDI IREKIAK
OÑATIko Campusa
943 71 80 09
• apirilak 20, 18:00etan.
• maiatzak 12, 18:00etan.

BIDASOAko Campusa
943 63 91 29
• maiatzak 7, 10:00etatik 13:00etara.

HUMANITATE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN FAKULTATEA

ESKORIATZAko Campusa
Lehen zikloa
• Irakaslea, Haur Hezkuntza espezialitatea.
• Irakaslea, Hezkuntza Berezia espezialitatea.
• Irakaslea, Atzerriko Hizkuntza espezialitatea.
• Irakaslea, Heziketa Fisikoa espezialitatea.
• Irakaslea, Entzumena eta Mintzaira espezialitatea.
• Irakaslea, Lehen Hezkuntza espezialitatea.
Bigarren zikloa
• Psikopedagogian Lizentziatura.
- Hizkuntzen Psikopedagogia.
- Esku-hartze Psikopedagogikoa.
Ziklo luzea
• Giza Zientziak Lizentziatura.
- Giza Zientziak Enpresari aplikatuta.
- Giza Zientziak Informazio eta Komunikazioari aplikatuta.

JARDUNALDI IREKIAK
ESKORIATZAko Campusa
943 71 41 57
• maiatzak 19, 18:00etan.

inskripzio epea zabalik

www.mondragon.edu
MONDRAGON CORPORACIÓN COOPERATIVA

Bikar MENDIOLA
San Andres 10 D · Tel.: 943 77 21 00 · ARRASATE
mazda

AIMAR ELORTZA

Aimar Elortzaren armairua sukalde bihurtzen da 36 m²-ko bere etxean.

dira. "Egiten dugun ohiko etxebizitza 90 m²-koa da, eta egin dugun txikiena 45 m²-koa da, Donostian", diote.

Debagoieneko mentalitateak ere ez du laguntzen. Udalatx etxeagentziak dioskunez, "jendeak beste itxaropen batzuk ditu. Etortzen zaizkigun gehienak bi edo hiru logelako etxea nahi duten bikoteak dira".

Etxeok merkeagoak dira txikiagoak direlako; ez, ordea, tamaina eskasa konpentsatzeko. Merkatuan, seguruenik, 110.000 euroko prezioa izango lukete; alokairu babestua balitz, aldeak daude baina, Aretxabaletan iaz banatutako 50 m²-ko etxebizitza baten errenta 61 eurokoa zen; Arrasaten, 36 m²-ko bat 150 eurotan alokatzen da.

Jokoan dago etxebizitza duinaren kontzeptua ere. Eztabaidagarria da hain etxebizitza txiki bat familia batendako leku duina den; hala ere, arrasatear batek dioen bezala, "San Andresen familiak 52 m²-ko etxeetan bizi izan dira eta ez da inoiz arazorik egon".

"ASKO ANIMATUKO LIRATEKE"

Errealitateak badu beste aurpegi bat ere, ordea. Batetik, joera da gero eta etxebizitza txikiagoak egitea. Eta, gogoak etxebizitza handia eskatu arren, poltsikoak ez badu laguntzen, jende asko gertu egon daiteke espazio txikiago batera moldatzera. Hala da dagoeneko.

Aimar Elortza gaztea 36 m²-ko etxebizitza baten bizi da Arrasaten, Bizigune programaren eskutik, eta "oso ondo" moldatzen da: "Etxetik irten gura duen batendako, prezio onean, oso aukera ona da. Eta ziur nago gazte asko eta asko animatuko liratekeela", dio berak.

Jesus Markaideren hitzek arrazoia ematen diote. Bere ustez, etxe txikiak premia bat dira: "Administrazioak debekatu egiten du 30 m²-ko etxebizitzak egitea. Hori itsutasuna da. Etxeak moldatu behar du pertsonara, ez alderantziz. Etxe horiek une jakin baterako irtenbide puntuala izan daitezke", da bere kexua.

Etxebizitza txikiak irtenbide egokia dira, pertsona eta baldintza jakin batzuetan. Bat datoz esatean, ezin direla hartu etxebizitzaren arazoaren konponbide moduan. Gakoa da etxe txikiek pareko prezioa izatea. Era berean, etxe horiek ez dira etxebizitzaren arazoaren konponbide: hori, adituek dioten bezala, lurra merkeagotzetik dator, baina hori gertatzeko luze itxaron beharko da oraindik.

Aldeko arrazoiak

GUTXIAGO ORDAINDU
Prezioa ere txikia lukete etxe hauek: 110.000 bat euro.

GARBITZEKO GUTXI
Garbiketa, mantenua... errazagoak, azkarragoak eta merkeagoak dira.

ETXEAN, GUTXI
Etxean edo hiri horretan denbora gutxi ematen dutenendako onak.

BAKARRIK BIZI
Irteera dira ezkongabe, bikote gazte edo erretiratuendako.

Aurkako arrazoiak

PREZIOA
Oro har, gutxiago kostatu arren, m2-ko ez dira tamaina arrunteko etxeak baino merkeago.

ESTUASUNA
Tamaina txikia abantaila da eta, era berean, eragozpen.

SALTZEKO
Aldi baterako gura dutenek zailtasunak izan ditzakete saltzeko.

ARGIA
Leiho, aireztapen eta argi gutxiago jasotzea gerta daiteke batzuetan.

Inspirazioa, Finlandian

Gurean harridura, ikusmina, desadostasuna... piztu dute, baina Europako beste herrialde batzuetan urte asko daramatzate minietxebizitzak egiten. Jesus Markaide etxe-agenteak dioskunez, "Parisen ohi-ohikoak dira 25 m²-ko etxebizitzak".

Baina Frantzian baino, Finlandian aurkitu zuen inspirazioa Mª Antonia Trujillo Espainiako Etxebizitza Ministroak. Izan ere, hara joan zen eredu hori ikertzera. Finlandian 40 bat urte ditu fenomeno horrek; etxebizitza blokeak egiten dituzte bizilagun guztiek erabiltzeko moduko baliabide batzuekin, garbigailugela, adibidez. Helsinkin, hiriburuan, 450-650 euro bitartean dago etxe horien errenta; Bartzelonan, 500 euro inguru. Hala ere, batik bat, ikasleek eta hirira maiz joan behar duten enpresaburuek hartzen dituzte errentan, familia handiek baino.

Argi dago etxebizitza txikiok zentzu askoz handiagoa dutela hiriburuetan, lurraren prezioarengatik eta baita jendearen bizimoduarengatik ere. Horrez gain, herri bakoitzaren nortasunak ere baldintzatu dezake halako etxebizitzen arrakasta: esaterako, finlandiarrak oso indibidualistak dira eta asko bakarrik bizi dira; Euskal Herrian, aldiz, familia eta taldea garrantzitsuagoak dira.

'Disseny' handiko etxeak

Ausarta izan da Bartzelonako Construmat azokan hainbat arkitekto espainiarrek egindako proposamena. Bartzelona diseinuaren eta estetikaren hiriburuetako bat izanda, han aurkeztutako mikroapartamentuak dotoreak ziren oso. Baina arkitekto horien proposamena urrutirago doa: apartamentu blokeak planteatzen zituzten familiendako –bai, 30m2-tan–, hainbat zerbitzu blokeko bizilagunendako konpartituak izanda.

Diseinatzaile horiek eredu erakargarriak egin zituzten. Galdera da, ordea, hain esklusibo eta ondo egindakoak izanda, diseinu horrek guztiak ez ote lukeen etxebizitza behar baino gehiago garestituko; eta, batez ere, ea proposamen horiek errealitatean bideragarriak ote diren.



Habitáculo **(Cortés, García eta García arkitektoak, Valentzia).**



Add APTM **(Suau Martorell, Balear uharteak).**

JC RACING

Boutiquea, ordezko piezak eta osagarriak
Gurpilen muntaketa
Motorrak etxeetan jasotzen ditugu

Zaraia 4 behea Aretxabaleta • Tel./ Faxa: 943 08 15 01

Enpresentzako %100-ean diruz lagundutako ikastaroak
Etengabeko formazio eredu berria

AKADEMIA BASTIDA
Info: 943 79 35 33
bastida@bastida.es

• Kalitatea
• Ingurugiroa
• Laneko arriskuen prebentzioa
• Informatika
• Disenua
• Gestioa
• Hizkuntzak
• Giza baliabideak

Baita zure enpresan bereziki egokitutako ikastaroak

GOIENKARIA
Egubakoitza / 2005eko apirilaren 22a

Gaur izango dira Oñatiko auto istripuan hildako lau gazteen aldeko hileta elizkizunak

Oñatiko Udalak herritarrei dei egin die elizkizun eta omenaldietan parte hartzeko

IRATI AGIRREAZALDEGI

Lau gazte oñatiar hil ziren eguaztenean Oñatin auto istripuan. Ford Fiesta autoak eta Pesa konpainiako autobus batek aurrez aurre jo zuten. Oñatiko Udalak hiru eguneko dolua egitea erabaki du; Mondragon Unibertsitateak bikoa.

Eguazten eguerdian auto istripu larria izan zen Oñatin eta lau gazte oñatiar hil ziren ondorioz. 13:20ean gertatu zen ezbeharra San Prudentzioko biribilgunea igarota, Oñatirako norabidean, Errota Elorregi baserritik 100 metrora dagoen bihurgunean. Bertan, Arrasaterako norabidean zihoan PESA konpainiako autobus batek talka egin zuen Oñatiranzko bidean zen Ford Fiesta zuri baten aurka, eta autoa guztiz txikituta geratu zen.

Bi ibilgailuen arteko kolpea oso handia izan zen, eta, ondorioz, eskolatik bueltan Oñatira autoan zihoazen 20 eta 25 urte bitarteko lau gazte oñatiarrak hil egin ziren. Auto barruan geratu ziren harrapatuta eta gorpuak suhiltzaileek atera behar izan zituzten. Bestalde, autobuseko bi bidaiarik zauri arinak izan zituzten eta gidaria *shock* egoeran egon zen Arrasateko Ospitaleko larrialdizerbitzuan. Milagros Azpiazu PESAko autobusean zen istripua gertatu zen unean, baina ez omen zuen ezertxo ere ikusi. "Bat-batean autobusa gelditu egin zen, baina ni atzean nindoanez ez nintzen ohartu zer gertatu zen. Sustoa baino ez zen izan. Gerora jakin nuen autobusean ere hainbat zauritu izan zirela".

Ikerketa abiatu dute istripuaren nondik norakoak aztertzeko. Hala ere, lehen hipotesien arabera, eguraldi txarra eta errepidea bustita egoteak eragin zuzena daukala uste du Ertzaintzak.

LAU NESKA-MUTIL HILDA

Istripuan hildakoak 20 urteko Aitor Oñate Aiastui; 22 urteko Mikel Urtzelai Aiastui eta Ane Miren Telleria Iñurritegi eta 24 urteko Amaia Uriarte Urtatza dira.

Lau gazteak Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoko ikasleak ziren, eta goizean eskolan izan ostean, etxera bueltan zihoazela izan zuten auto istripua.

Aitor Oñate e lektronikako 2. eta 3. mailan zebilen eta futbol zalea zen. Aita Luisen urratsei jarraituz Aloña Mendin ibilitakoa, eta gaur egun beteranoen txapelketan ziharduen Etxakixat futbol aldearekin.

Mikel Urtzelai mekanikako ikasketak egiten ari zen, eta laguinen esanetan ikasle ona zen. Aitorrek bezala futbola zuen gustuko. Honek ere beteranoen txapelketan hartzen zuen parte Nandrolona taldearekin. Honetaz gain, mendia ere oso gustuko zuen.

Ane Miren Telleria informatikako 4. mailan zebilen Amaia Uriarterekin batera. Lagunek eta ingurukoek Ane Mirenen alaitasuna azpimarratu dute. Bere zaletasunak hizkuntzak eta mendia ziren eta baita mutil lagunarekin eta koadrilakoekin irtetea ere. Bestalde, gogoratu dute Ane Miren txikitan hilzorian egon zela eskolara bidean auto batek harrapatu zuelako. Hala ere, erabat errekuperatu zen istriputik.

Amaia Uriarte ere, gainontzeko gazteak bezala, ezaguna zen herrian. Egun erdiz lanean zihardu en Ulman eta informatikako ikasketak ere egiten zituen.

GOIATZ ARANA

Kontrako noranzkoan Arrasterantz zihoan autobusa jo zuen gazteak zihoazen Ford Fiesta zuriak eta txikituta geratu zen.

PESAko autobusak eta Ford Fiesta autoak egin zuten talka eta autoa txikituta geratu zen

Aitor Oñate, Ane Miren Telleria, Mikel Urtzelai eta Amaia Uriarte dira hildako lau gazteak

Oñatiko Udalak hiru dolu egun ezarri ditu Mondragon Unibertsitateak, berriz, bi

DOLU EGUNA

Oñatiko Udalak hiru dolu egun ezarri ditu lau oñatiarren heriotzagatik. Eguaztenean hartu zuten erabakia bozeramaileen batzarrean. Erabaki zuten "hiru eguneko dolu ofiziala izatea Oñatiko herrian, doluminak adieraztea hildakoen familiartekoei, eta herritarrak gonbidatzea hildakoen alde antolatuko diren hileta elizkizunetan parte hartzera". Oñatiko alkate Andoni Gartziak, erabat hunkituta, eman zuen erabakiaren berri.

Lau hildakoak ziren Goi Eskola politeknikoko ikasleak. Horregatik, fakultatean bi dolu egun egin dituzte. Bi egun horietan ez da eskolarik egon. Mondragon Unibertsitateko gainontzeko fakultateetan ere egun bateko dolu eguna egin zuten eguenean.

Ulman egiten zuen lan Amaia Uriartek, eta enpresa horretako bazkide dira hildakoen hiru guraso ere. Hori dela-eta Ulman ere dolu eguna egin zuten. Bestalde, Oñatin asteburuan egitekoak ziren ekitaldi asko eta asko bertan behera geratu dira.

DOLUMINAK

Asko izan dira publikoki euren dolumina azaldu dutenak. Oñatiko PSE-EE-ko ordezkariek halaesan dute: "bat egiten dugu senideen saminarekin"; bestalde, jakinarazi dute omenaldian parte hartuko dutela. Oñatiko Elkar Hezi Ikastetxeko Komunitateak ere bere doluminak eman ditu.

Txantxiku ikastolak ere senitartekoei elkartasuna adierazi die; bide batez, jakinarazi dute Txantxiku Ikastolaren Egunerako iragarrita zeuden egueneko ekitaldiak bertan behera utzi arren, zapatuko ekintza guztiak mantenduko dituztela. Oñatiko Larrañako Institutuan ikasitakoak ziren hildako hiru eta, horregatik, ikastetxe horretan ere dolu eguna egin dute gaur, egubakoitza, eta familiartekoei doluminak adierazi nahi izan dizkie eskolako klaustroak.

HILETA ELIZKIZUNAK

San Migel Goiaingeruaren parrokian zazpietan

Lau gazteen aldeko hileta elizkizunak gaur, egubakoitza, egingo dituzte. Hiletak Oñatiko San Migel Goiaingeruaren parrokian izango dira 19:00etan. Aurrez gorpuei autopsia egin diete Donostiako Polloeko tanatorioan.Udalak herritarrei dei egin die hileta elizkizun hauetan parte hartzeko. Bestalde, udaletxeko balkoian ikurrina ipini dute xingola beltzarekin.

GOTZAINA OÑATIN

Juan Maria Uriarte hileta elizkizunetan

Gaurko hileta elizkizunak Juan Mari Uriarte Donostiako Gotzaiak gidatuko ditu. Juan Mari Uriarteren arabera, gaurko hileta elizkizunean, Oñatiko gazteekin batera, Lantziegon auto istripuan joan zen barikuan hil ziren hiru andereñoak (horietako bat Oihana Torrealdai arrasatearra) ere gogoan izango dituzte. Anjeles Iztueta sailburua ere han izango da.

OMENALDIA

Eskola Politeknikoak ez du zehaztu noiz izango den

Aitor, Amaia, Mikel eta Ane Miren Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoko ikasleak zirenez, eskola jakinarazi du euren omenez ekitaldiren bat egingo dutela. Hala ere, bi dolu egunen ostean hasiko dira omenaldia prestatzen, eta orduan jakinaraziko dute noiz eta non izango den, eta baita ekitaldi horretan zer egongo den ere.

Gehien galdu duena izan arren, EAJ-EA izan da nagusi, bigarrenaren botoak ia bikoiztuz

Ezker abertzale ofizialaren aukera eta sozialistak, bototan gora egin duten bakarrak

ENEKO AZKARATE

EAJ eta EA izan dira irabazle Debagoienean. Hala ere, koalizioa izan da indar eta boto gehien galdu dituena, orain dela lau urteko hauteskunde berezi haiekin alderatuz: 9 puntu eta 6.659 boto. PP izan da behera nabarmen egin duen beste aukera: 2.302 (ia botoen erdiak) eta 4,3 puntu.

Gora egin dutenen artean daude EHAK, hau da, legez kanporatutako ezker abertzale ofizialekoak ordezkatzen dituen taldea, eta sozialistak. Lehenengoek 3,5 puntu irabazi dituzte orain dela lau urte EHk lortu zituen emaitzekiko; PSE-EEk, ostera, bi puntu irabazi ditu.

Aralarrek 2.553 boto lortu ditu (%6,7) eta horrek lagundu dio Legebiltzarrean ordezkaritza lortzen Gipuzkoatik. Ezker Batuak zertxobait galdu du bototan, baina puntu erdi gora egin du boto portzentajeari erreparatuz gero.



Azken hauteskundeetako emaitzak Debagoienean

	2001 Legebiltzarra		2003 Udalak		2004 Gorteak		2004 Europa		2005 Legebiltzarra	
Parte-hartzea	**%82,2**		**% 74,76**		**%75**		**%44,7**		**%71,6**	
EAJ-EA	22.531	%51,2	15.982	%41,5	17.123	%42,7	9.113	%39	15.872	%42,2
Batasuna	8.502	%19,5	8.140	%21,1	5.610	%11,1	5.334	%22,8	8.659	%23
PSE-EE	5.156	%11,6	4.293	%11,1	6.460	%13	3.779	%16,1	5.156	%13,7
PP	4.885	%11,1	2.542	%6,6	3.134	%7,8	1.801	%7,7	2.583	%6,8
Aralar		–	3.650	%9,4	4.083	%10,2	983	%4,2	2.553	%6,7
EB	2.417	%5,5	2.939	%7,6	3.026	%7,5	878	%3,7	2.282	%6

BOTO MAILEGUAK JATORRIZKO AUKERETARA ITZULI DIRA
Duela lau urteko Legebiltzarrerako hauteskundeetan 22.500 boto eskuratu zituen. Mayor Oreja edo Ibarretxeren artean aukeratu beharrak boto zaparrada eman zion koalizioari. Boto mailegu haiek ezker abertzaleko aukeretara itzuli dira edo etxean geratu dira: hortik jaitsiera.

MARKA EZBERDINEKIN, GORANZKO JOERA
Legez kanporatutako aukerak goranzko joera erakutsi du 2001etik hona egin diren hauteskundeetan (2003ko Espainiako Gorteetarako hauteskundeak dira salbuespena, orduan botoen %11,1 baino ez zituen eskuratu-eta). Gehien igo den aukera da, %19,5etik %23ra, eta bigarren indarra da Debagoienean.

GUTXIGATIK BADA ERE, BOTOTAN ERE GORA
Sozialistek ere gorantz egin dute hauteskundez hauteskunde, 2003ko Udal hauteskundeetan izan ezik. 2001eko hauteskundeekiko bi puntu egin dute gora eta, ezker abertzalearekin batera, bototan gora egin duen bakarra da. PPren galerak on egin die sozialistei, haien boto ugari bereganatu dituztelako.

LAU PUNTU ETA BOTOEN ERDIAK GALDU DITU
Koalizioarekin batera, PP da gehien galdu duen aukera politikoa. Duela lau urteko bozketekiko lau puntu baino gehiago eta ia botoen erdiak galdu ditu. Espainian nagusitasuna galdu izanak ekarri du azken jaitsiera eta, 2001ean sozialistengatik gertu bazeuden ere, orain haien botoen erdiak dituzte.

UDAL HAUTESKUNDEETATIK HONA, BEHERANTZ
2.555 boto eskuratu ditu (%6,7) eta ibarreko bosgarren indar bilakatu da. 2003ko Udal hauteskundeetan aurkeztu zen lehen aldiz eta 3.650 boto lortu zituen (%9,4); Espainiako Gorteetarakoan ere gehiago lortu zituen (4.083, %10,2), baina orduan Zutikekin batera. Beraz, beherako joera izan du.

JOERA NAHIKO EGONKORRA
Joera nahiko egonkorra erakutsi du, boto emaile fidelak ditu eta. Orain dela lau urteko hauteskundeekiko puntu erdi egin du gora, bototan apur bat galdu arren. Azkeneko egin diren hauteskundeetan botoen %5,5 eta %7,5en artean ibili da; salbuespena izan ziren iazko Europako hauteskundeak (%3,7).

KIA MOTORS

KIA SPORTAGE
Gasolina/Diesel
19.155 eurotik
aurrera*

KIA CARNIVAL
Gasolina/Diesel
19.300 eurotik aurrera*

KIA PICANTO 1.0 / 1.1
"0 km" azken unitateak
6.580 eurotik aurrera*

Tecnocar

Honda eta Kia
banatzaile ofiziala

TECNOCAR GIPUZKOA
Erakusketa eta tailerra
Araba etorbidea z/g – Arrasate
943 79 22 67 –
Faxa: 943 71 27 38

Adi!
• **3** urteko garantia
• **0 km** aukera bereziak

*Prever plana barne.

HONDA
The Power of Dreams

HONDA CRV
27.300 eurotik
aurrera*

DIESEL BERRIA

BERRIA: 6 eserleku
HONDA FRV
20.600 eurotik aurrera*

HONDA ACCORD
Gasoli./Dies.
22.100 eurotik aurrera*

Edozein premiatarako:
- Antzutasuna
- Erditzeak
- Antisorgailuak
- Menopausia
- Ekografiak (4D)
- Titietako gaixotasunak
- Minbiziaren diagnostiko goiztiarra
- Hezur dentsitometria

Zure zerbitzura:
- Antonio Estomba
- Fernando Cristobal
- Alfredo Otalora
- Jose M. Gomez
- Ainhoa Larrea
- Domingo Murgiondo
- Miguel Gabarain
- Maria Jose Ruiz
- Fatima Azkue
- J. Rodriguez
- Mikel Gorostidi
- Mikel Arroyo

CG
CONSULTORIO GINECOLOGICO

ARRASATE
Zerkaosteta 17
943 79 20 18
Donostia: 943 30 82 08
Eibar: 943 12 10 2
Irun: 943 61 78 88

gasteizon
centro comercial abierto
merkataritza-gune irekia
www.gasteizon.com

GASTEIZEN HITZORDUA DUZU
2005EKO APIRILAREN 22tik 28ra

Florida Guridi CINES ZINEMAK

CINES GURIDI ZINEMAK
"SAHARA" ESTRENALDIA
5-,30-8-10,30
"LA MALDICION" ESTRENALDIA
5-,30-8-10,30
"FRAGIL"
5-,30-8-10,30
"IN GOOD COMPANY"
5-,30-8-10,30
"BE COOL"
5-10,30
"MILLION DOLLAR BABY"
7,45
"ROBOTS"
5
"BODAS Y PREJUICIOS"
7,45-10,30
"EL GRAN GOLPE" ESTRENALDIA
5-7,45-10,30
"REINAS" ESTRENALDIA
5,30-8-10,30

zinema

Florida Guridi CINES ZINEMAK

CINES FLORIDA-GURIDI ZINEMAK
"REINAS"
5,30-8-10,30
"MI QUERIDO FRANKIE"
5,30-8-10,30
"LOS EDUCADORES"
5,30-10,30
"LA DAMA DE HONOR"
8
"MILLONES" ESTRENALDIA
5,30-8-10,30
"HERMANAS ENFADADAS" ESTRENALDIA
5-6,50-8,40-10,30
"SAMARITAN GIRLS"
5-6,50-8,40-10,30
"15 DIAS CONTIGO" ESTRENALDIA
5-6,50-8,40-10,30

zinema

Florida Guridi CINES ZINEMAK

Aprobetxa ezazu Florida eta Guridi zinema-aretoen eta Bocatta-ren primerako menua:

Bocatta 1
+ edari 1
zinemarako sarrera 1

7 euro

menua

Bocatta®
"Bocatta onenak, ikusle onenentzat"

ANTZUOLA

Lasterketa dela eta, aparkalekuak kenduko dituzte hainbat kaletan

Zapatuan Gipuzkoako Klasikoa jokatuko dela eta, 09:00etatik 18:00etara ezingo da aparkatu Buztinzurin, Kalebarrenen eta plazan. Udalak esan digunez, autoren bat aparkatuta baldin badago, garabiari deituko diote.

ERRETIRATUAK OÑATIRA

Hilaren 5ean, arratsaldean, Oñatira irteera egingo dute erretiratuek. Han bisita gidatua egingo dute eta ondoren askaria, Pake-Leku elkartean. Izena emateko aukera izango duzue hilaren 29an eta 30ean, 18:00etatik 19:00etara. /A.I.



IRATI AGIRREAZALDEGI

BERGARA

Osintxuko zubia inauguratuko dute zapatuan

Osintxuko zubi berria inauguratuko dute larunbatean, eguerdian. Soraluce enpresaren aginduz, Altuna y Uria enpresak egin ditu lanak, 1,2 milioi euro inguruko aurrekontuarekin. Uztailean hasi zituzten zubia eraikitzeko lanak, Gerondo parean. Zubia eraikitzeaz gain, harri lubetak egin dituzte Deba ibaian. Zubi berriak 35 metro inguru ditu. Aurrerantzean, inguruko enpresetara joateko zubi berria erabiliko dute kamioiek eta hango langileek. Orain, zubi zaharra berritzeko proiektua eskuartean du Udalak.

Biharko inaugurazio ekitaldian, Udaleko ordezkariez gain, Jesus Catania MCCko presidentea, Miguel Herrera Soraluceko presidentea eta Rafael Barrenetxea Soraluceko gerentea izango dira. /EDU MENDIBIL

ARETXABALETA

Hautatuta laugarren udaltzaina, Luisa Hernandez arrasatearra

Dagoeneko izendatu dute Aretxabaletako laugarren udaltzaina. Luisa Hernandez arrasatearra da bera. Azterketa gainditu ostean, proba fisikoak egitera aurkeztutako bakarra izan zen. Lanean noiz hasiko den oraindik zehaztu barik egon arren, laster ikusiko dugu kalean. Jose Nuñezek utzitako hutsunea beteko du Luisak, eta Aretxabaletako lehenengo udaltzain emakumezkoa da. Lanean hasi ostean, baina, udaltzainak gertatzeko egiten duten ikastarora joan beharko du Arkautera, hiru hilabetez. /M.A.

ARAMAIO

Bigarren eskuko liburu azoka eta Sagardogileen Eguna, asteburuan

Gaur, barikua hasi eta domeka arratsaldera arte aisialdirako aukera aparta izango da Aramaion. Gaur, Aretxabaletako Trikilmailu taldeak *Singing euripean* antzeztuko du. 22:00etan. Bihar, berriz, bigarren eskuko liburu azoka egingo dute, 10:30etik 14:00ak arte. Merke-merke ipiniko dituzte liburuak. Bidezko merkataritzan oinarritutako saltokia ere ipiniko dute.

Eta bihar, domeka, 18 baserritarrek egindako sagardoa plazara eramango dute, Sagardogileen Eguna da-eta. 11:30etik aurrera izango da. /U.M.

ARRASATE

Enplegua lortzen laguntzeko programa bideratuko du Udalak

Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak erabiltzen dituzten herritarrei lanerako formazioa, praktika eta orientazioa emateko programa abiaraziko du Udalak: Auzolan. Jaurlaritzak 87.286 euro pasatxoko dirulaguntza eman dio horretarako.

Oinarrizko errenta jasotzen dutenak, baztertze arriskuan daudenak... baina, batez ere, lan-merkatutik kanpo urte ugari daramatenak: mota horretako beharrak dituzten herritarrei laguntzeko da Auzolan programa.

HASTEKO, ZORTZI LAGUN

Hala, Udaleko Gizarte Zerbitzuen erabiltzaileen zerrenda hartu eta zortzi lagun aukeratu ditu Arrasateko Udalak. Lehenengo, hasierako ikastaro bat egingo dute, maiatzaren 31tik ekainaren 3ra arte. Gero, ekainaren 15etik abenduaren 14ra bitartean, lanean jardungo dute, aldi baterako lan kontratuarekin. Tarte horretan, formazioa jasotzen segituko dute.

Bukatzeko, abenduaren amaieran, ebaluaketa egingo dute parte-hartzaile guztiekin, eta besteak beste, enplegua lortu ahal dezaten orientazioa emango diete.

EMAITZA POSITIBOAK

Eman dizkiguten datuen arabera, Auzolan programa abiarazi izan duen aurreko urteetan, Eusko Jaurlaritzak emaitza positiboak lortu ditu. Egindako balorazioaren arabera, tresna baliagarria da parte hartzen dutenek gaitasun profesional egokia jaso dezaten. /U.M.

Zertzelada

Oinarrizko errentaren hartzaileei, baztertze arriskuan daudenei eta lan-merkatutik kanpo urteak daramatzatenei dago zuzenduta Auzolan

OÑATI

Urrezko apaiz ezteiak ospatuko dituzte domekan herriko hiru semek

Jesus Iturrospe Mujika, Miguel Aranburu Korkostegi eta Jabier Etxeberria Arrese oñatiarrek 50 urte egin dituzte apaiz, eta domekan urrezko apaiz ezteiak ospatuko dituzte jaioterrian. Eguerdian, 12:00etan, meza egingo dute Mikel Goiangeruaren parrokian eta gero luntxa egongo da joaten diren guztiendako. Donostiako Elizbarrutiak urtero egiten die omenaldia 50 urte apaiz betetzen dituztenei eta aurten hiru oñatiar hauek daude omenduen artean.

Egun, Jesus Iturrospek Orioko parrokian jarraitzen du; Miguel Aranburuk, Arrasatekoan, eta Jabier Etxeberria Oñatiko parrokiako laguntzailea da. /O.E.

JABIER ETXEBERRIA

Oñatin esan zuten lehen meza eguna.

ESKORIATZA

Udalak hartu du Apotzagako bidea egiteko ardura; hasita daude lanak

Udalak erabaki du Apotzagako auzotarrek duten arazoari irtenbidea ematea. Autobideko lanak direla eta, kamioien eta makinen trafiko handia dute auzoko bidean. Auzotarren esanetan, Bidegik agindu zien bide alternatiboa egingo zuela, baina ez du halakorik egin.

Martitzenean hasi zituzten lanak, eta Udala Bidegirekin harremanetan dago haiek ere ordain dezaten. Lanek bi fase izango dituzte eta Aretxabaletako Udalari baimena eskatuko diote bidea Apotzaetxebarritik egiteko. /I.B.

ELGETA

Eskola Txikien Jaia girotzeko ekitaldia izango da hilaren 30ean Espaloian

Eskola Txikien eguna Elgetan izango da aurten, ekainean. Jai hori girotzeko ekitaldia egingo dute hilaren 30ean Espaloian. Bertan, besteak beste, Eskola Txikien Jairako abestia jendaurrean joko dute. Jaialdia ume zein helduendako izango da, eta antolatzaileek herritarrak animatu nahi dituzte parte hartzera: "Jolasak eta sorpresa asko egongo dira, eta gure asmoa da ahalik eta jende gehien elkartzea Espaloian". Jaialdia 19:00etan hasiko da eta sarrera doanekoa da. /I.A.

LEINTZ GATZAGA

"Lortu dugu Euskal Bizikleta herrira ekartzea; babesleak behar ditugu orain"

Alberto Altube da datorren urteko Euskal Bizikleta Leintz Gatzagara ekartzeko lanetan ibili den herritarretako bat. Gaitzena egin dute, baina orain, babesle bila hasi behar, diru asko behar da-eta.

Horrekin batera, antolatzaileek uste dute lasterketa egunerako lortu behar dutela Dorletako Santutegia eta Arlabango errepidea lotzen dituen pista asfaltatzea. Alkatearekin izan gara, eta Joxerrak pausoz pauso joan gura du, "lehenengo pista egin behar da". /X.U.

Gutunak

Eskerrik askorik ez, ekin lanari

Hauteskundeak pasa dira eta ohiko izaten denez hor ditugu politiko guztiak eurei botoa eman dietenei eskerrak ematen. Bidezkoa eta lege onekoa da, baina hori baino garrantzitsuagoa dahemendik aurrera gure botoekin zer egin behar duten eta nola egin behar duten herritarrei azaltzea.

Errealitatea uste baino gutxiago aldatu da gure herri honetan. Lehengoetan gaude. Begira bestela 2001eko hauteskundeetan PP-PSE blokeak ateratako boto portzentajea eta 2005ean lortu duena: %40a bietan. Besteek, ondorioz, %60a lortu dute, bai 2001ean eta 2005ean. Irakurketa honekin geratu nahi dut; izan ere, ez dago abstentzioaren eraginik, emandako aldaketetan eta blokeen barruan izandako mugimenduetan dago aldea.

2001ean egon zen tentsionamendu politikoak eragin zuen PNV-EAk eta PPk hainbat boto maileguan hartzea. Horietako asko beren tokira itzuli dira, aurretik geneukan osaketaren antzekoa ezarriz Gasteizko parlamentuan.

Urte asko dira aukera honetatik irten ezinik gabiltzala, eta hauteskundeen jokoak eman zezakeena eman duela uste dut. Hauteskundeak errepika genitzake behin eta berriro, baina 40-60 banaketa behin eta berriro ikusiko dugula uste dut. Bada ordua, beraz, politikoek lanari ekin eta herri honen benetako arazoa konpontzen saia daitezen. Ez nau kezkatzen nor izango den gobernuan, ezta nor izango den hurrengo lehendakaria ere. Aspertuta nauka txikikeria horrek.

Politikoek lanari ekin eta herri honen nahiari jaramon egiteko behar besteko ausardia izatea da giltza. %60ari PSEren %23a gehitzen badiogu, herri honen %83a gutxienez aldaketa baten alde dago. Kartak mahai gainean daude: borondatezko atxikimendua, estatutuaren erreforma, Anoetako proposamena, federalismoa…, jokoan hasteko ordua iritsi da politikari jn/and.-ak.

Horretarako, markatutako kartak albora utzi beharko dituzue eta mahaigaineratu dituzuen proposamenei buruzko jarrerak malgutu. Batzuek, armen hotsa isilarazi beharko duzue, besteek ukiezina den konstituzio baten mehatxua alboratu, eta besteek adostu gabeko erreferendum baten aukera ahaztu beharko duzue.

Bada ordua zuek bakea eta marko egonkor bat diseina dezazuen. Eskerrik asko guztien ordez hau ematen ez badiguzue, gutun hau izenpetzen duenak, behintzat, zalantza handiak izango ditu hurrengo hauteskundeetan bozka ematera joateko.

IÑAKI MARTINEZ
Debagoiena

Hiru kartelegatik epaitua

Lerro hauek idazten ditut, ez gaian zirikatzeko asmoz, baizik eta gaiak hartu duen traza eta eman zaion publizitatea ikusita , erabat harrituta eta erdi ikaratuta nagoelako.

Pasa den apirilaren 2an, goizeko 10etan, EAJ-EA koalizioko hauteskunde kartelak jartzen aritu nintzen Aramaion, Udalak horretarako egokitutako tablerotan. Konturatu gabe eta inongo borondate txarrik gabe, apirilaren 23ko bigarren eskuko liburuen feria iragartzen zuen kartelak tapatu nituen, eta horixe izan da, hain zuzen, nire bidegabekeria: hiru kartel horiek tapatzea! Hori dela-eta, Angolako herriak bizi duen miseriaren errudun hartu nautelakoan nago, feria horretan jasotako dirua horretarako baita.

Ez ezazue errudunik bilatu! Ni neu naiz errudun bakarra! Eta mesedez, ez ezazue kartel horietan agertzen zen koalizioa gai honetan sartu, ez dute zerikusirik eta. Berriro diot, ni neu naiz hiru kartel horiek tapatzeagatik gazteen kontrako errespetu faltaren errudun bakarra!

Aukera hau aprobetxatu nahi dut gaiaren inguruan hausnarketa planteatzeko, esan bezala gaiak hartu duen pisuaz arduratuta nago-eta: Udalean kexak, GOIENKARIAn pasa den aste bukaeran argitaratuko gutuna; ikusteko dago nola bukatuko den!

Lehen hausnarketa: Pasa den apirilaren 9an beste alderdi bateko kartel ugari jarri ziren tableroetan; zergatik ez dira kexatu nik jarritako kartelekin gertatu den bezala? Beharbada beste sigla batzuk dituztelako? Apirilaren 16an oraindik ere berdin daude eta tablero bakar batean dago liburu feriako kartela jarrita. Hala ere, ez da inolako kexarik egon, ez Udalean ez komunikabideetan.

Ez da izango ba Aramaioko alkate izan nintzelako eta hauteskundeak aprobetxatuz, politikoki kontra egiteko garai aproposena izan daitekeelako? Ez da gaia politikoki manipulatu? Egia esan, ez dut ulertzen.

Bigarren hausnarketa: Alkate nintzela, beste gai batzuen artean, Gaztetxea jarri genuen martxan, oso lokal egoki eta erosoa, hasierako proiektuan gazteek proposatu zutena kontuan hartuz. Funtzionamendurako oinarrizko baldintzak zehaztu ziren, baina etengabe hautsi ziren arauak: erretzea, garbitasuna, ordutegiak, eta abar. Udalak behin baino gehiagotan agertu zuen gazteekiko tolerantzia lokala erabiltzen jarraitzeko. Oraingo honetan, aldiz, ez dut tolerantziarik ikusi nirekiko, are gehiago, publikoki kondenatua izan naiz falta larri bategatik: liburu feriako hiru kartel tapatzeagatik! 23 egun beranduago ospatuko den feriako hiru kartel tapatzeagatik, hain zuzen!

Uste nuen, gainera, gure artean gaia eztabaidatu ondoren ez zela komunikabideetara zabalduko, baina oker nengoen, argi dago.

Bukatzeko, ez nago ados pasa den apirilaren 15eko GOIENKARIAn gazteek idatzitako gutunean esaten diren hainbat gauzarekin: gazteak ez direla ezer, ez direla errespetatzen, bigarren mailako hiritarrak direla, eta abar. Gutuna idatzi duenak azaldu beharko du hori. Nire ibilbide politikoan pertsona guztiak errespetatu ditut, guztiak. Hau da, errespetu bera merezi dute, nire ustez, gazteek zein gazte ez direnek.

Modu berean neur itzazue batzuen eta besteen ekintzak. Liburuaren Feria bakean ospa dezagun, konfiantzan eta tolerantzian. Asko eskatzea da?

IÑAKI NAFARRATE
Aramaio

Bergaran zinema aretorik ez: Primeran!

Bergaran, jada, ez dago zinema aretorik. Hau atsekabea!, edo lotsa esan beharko nuke? Izan ere, Bergarako zinema zale handiena izan ez arren, niretako Novedades aretoa herentziaz jasotako zerbait zen eta, horrexegatik, zaindu, babestu, eta gure ondorengoei ere utzi beharra geneukala uste nuen edo, ahal izanez gero, haren ordez berria utzi. Eta, batez ere, Bergaran hiru zinema areto ezagutu ditudanean, Novedades, Irala eta Cinema, eta kontuan izanda, herriko bi ikastetxek ere —Errege Seminarioak eta Mariaren Lagundiak— izan zituztela zinema aretoak eta filmak sarri eskaintzen zituztela. Uste nuen Novedades herriaren onerako zerbitzu bat zela eta zinema eskaintzari eusteko gauza izango zirela.

Txarto hartu nuen gainerako zinema aretoen itxiera, baina uler dezaket Udalaren lehentasunak beste batzuk zirela eta ez kultura. Hala ere, orain, ez diot nire herriari zentzurik hartzen.

Gaztea nintzen Bergara tren barik geratu zenean; heldua nintzen autobus geltoki barik geratu zenean; heldu izaten jarraitzen dut ikusten dudanean herriko gaztetxoak ondoko herrietako udal igerilekuetara joan beharra dutela igeri egiten ikastera, eta gazteenek bizikleta hartu eta Usakoko presara; eta iruditzen zait zentzua galdu dudala ikusten dudanean Bergaran ez daukagula zinema aretorik, Udal Musika Banda entzuteko pilotalekura joan beharra daukagula, auditorio barik segitzen dugula, ezin dezakegula antzerki lan bat ganoraz ikusi…

Arrasaten dagoen Eskualdeko Ospitalean jaiotzen dira bergararrak; Arrasaten dagoen INEMeko bulegoan eman behar dute izena langabezian dauden bergararrek; Arrasatera edo Eibarrera joan behar dute Lanbide bulegora joan beharra dutenek…

Bergararrok ez bagara gauza herriarendako onerako zerbitzu moduan hartu eta zaintzeko zinema areto bat, igerilekuak edo auditorio bat, Gipuzkoako gainerako herriak bezala, pentsatu beharko dugu ez garela gure albokoak bezain gipuzkoarrak, eta konformatu beharko dugu klase apur bat daukagula uste izatearekin…, hori ere herentziaz datorkigun arren.

ANA ILARDUIA UNAMUNO
Bergara

Kabreauta nago

Tristia iruditzen jat Bergara moduko herri bat zinema aretorik gabe egotia. Ez dakit zeintzuk diren arrazoiak eta ez ditut jakin nahi, ez baita nire lana; baina diru asuntoa bada, pertsonalki nahiago dut, adibidez, herrian palmera eta lora gutxiago ikustea (edo Gabonetako argi gutxiago), zine barik geratzea baino (ez daukat ezer lorazainen kontra, barkatu).

Dena den, esperantza daukat gai honen ardura dutenek, zerbait egingo dutela Bergara zinema aretorik gabe ez geratzeko.

ASIER ELORTZA GURRUTXAGA
Bergara

Etxe barik gera naiteke

Nire egoeraren berri ematea egoki iruditu zait, irakurle. Honako hau da: hiru kidez osatutako familia osatzen dugu nire senarrak, semeak eta neuk. Badira lau urte errentan hartutako etxe batean bizi garela. Baina etxearen jabeak bankuarekin daukan arazo bat medio, hilabeteko epea eman digute etxea uzteko.

Hilaren 18an oraindik ez dut errentan hartzeko moduko etxerik aurkitu; izan ere, alokatzeko zeuden etxe guztiak, Udalarenak barne, etorkinei errentan utziak dituzte jabeek.

Apirilaren 20rako oraingo etxea utzi behar dugu. Eta, non bizi ez daukagunez, kalean ikusten dugu geure burua.

Gutun honekin, gure arazoaren berri herritarrei emateaz gain, egoera jasanezin hau konpon dezatela eskatu nahi diet agintariei.

VICENTA CASADO
Bergara

Goienkaria
DEBAGOIENEKO ASTEKARIA

ZUZENDARIA
Eneko Azkarate

ERREDAKZIO KONTSEILUA
Edorta Mendieta,
Miguel Angel Elkoroberezibar,
Josemari Velez de Mendizabal

ADMINISTRAZIOA
Agurtzane Gaintzarain,
Ane Berezibar, Iratxe Bengoa

SAILETAKO ARDURADUNAK
Iñaki Iturbe (Diseinua)
Gotzon Arzelus (Publizitatea)

PUBLIZITATEA
Natali Martínez, Mireia Larrañaga,
Ziortza Martin, Imanol Elortza,
Amaia Mundiñano, Itxaso Berezibar,

PRODUKZIOA
Iban Arantzabal

TESTUEN ZUZENKETA
Karmele Etxabe

HARPIDETZA ETA BANAKETA
Marta Leturia

Goiena
Komunikazio Zerbitzuak

LEHENDAKARIA
Estepan Plazaola

ZUZENDARI NAGUSIA
Iñazio Arregi

GOIENKARIAk ez du bere gain hartzen orri hauetan adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Lan mundua euskalduntzeko sortu zuten Emun kooperatiba 1996an. Lau lagun ziren hasieran eta 60k dihardute egun. Arrasaten dute egoitza nagusia, baina martxoan Andoainen zabaldu zuten beste bulego bat.

OIHANA ELORTZA



OIHANA ELORTZA

Dani Larrea

EMUN KOOPERATIBAKO KUDEATZAILEA

"Euskararen normalizazioan, arlo sozio-ekonomikoa euskalduntzen dihardu Emunek"

HEZKUNTZATIK LAN MUNDURA

"Hezkuntza arloan aurrerapauso handiak egin dituzte euskara indartzeko, baina oraindik hutsuneak daude; enpresa gehienetan gaztelania da nagusi eta zaila da hori aldatzea"

NAHIA, MOTIBAZIOA ETA AHOLKULARITZA

"Lan mundua euskalduntzeko, batetik, enpresak gura behar du bere burua euskalduntzea; bestetik, motibazioa izan behar dute bertakoek, eta aholkularitza ere ezinbestekoa da"

Zer lan egiten du zehazki Emunek?

Lan mundua euskalduntzea da Emunen xedea, eta sortu eta urtebetera, 1997an, hasi ginen. Euskara planak enpresetan sartzen hasi ginen. Enpresarekin jartzen ginen harremanetan, euskara zelan zegoen aztertu eta haren beharretara egokitzen genuen plana. Egun ere horixe da gure lanjarduna.

Baduzue zerbitzu osagarririk?

Euskara eskolak eman eta itzulpen zerbitzuak egin ere egiten ditugu. Zerbitzu hauek ere enpresetan eskaintzen ditugu, baina, batez ere, euskara planak dira gure salmenten muina: %90era iristen dira, gutxi gorabehera.

Zer hartzen duzue kontuan plan bat diseinatu edo antolatzeko orduan?

Enpresan bertan dagoen egoera, batetik, eta enpresak plana zertarako nahi duen, bestetik. Gu aholkulariak gara, baina enpresak berak erabakitzen du plana ezertarako nahi duen. Batzuk barruko harremanak bultzatzeko nahi dute, idatziz zein ahoz; beste batzuek, ordea, zerbitzuetako enpresek, adibidez, kanpora begira duten irudia zaintzeko nahi dute euskara plana. Bezeroaren beharretara egokitzen gara gu.

Iraupen zehatza izaten dute plan hauek edo beharrak ezartzen du planaren denbora?

Hasieran, Quebec-etik ekarritako metodologia batekin hasi ginen lanean. Han nola funtzionatu zuen ikusi genuen eta hona moldatu genuen. Haren arabera, hiru urteko prozesuak aztertu genituen eta 1997an ideia horrekin hasi ginen. Gaur egun ikusten dugu, ordea, gure bezeroak diren hainbat enpresatan sei edo zazpi urtetako planak ditugula.

Planaren bukaera noiz heltzen den aztertzean, bi gauza ezberdindu behar ditugu: batetik, planak berak ez duela bukaerarik, azken finean, etengabeko hobekuntza delako eta bukaera enpresa berak jarriko diolako; beste puntua da aholkularitzak noiz arte izan beharko lukeen. Hori ere enpresaren esku dago; batzuek erabakiko dute ahalik eta denbora gutxienaren barruan jabetu behar direla planaz, gero enpresak berak bere gain hartzeko aholkularitza lanak, pertsona bat horretarako liberatuz, adibidez. Beste enpresa batzuendako, ordea, euren politika izango da zerbitzu hori azpikontratatzea, zerbitzu horrek euren negozioarekin zerikusirik ez duelako. Beraz, hasierako hiru urteko kontu hori apurtu egin dela uste dut, hasieran, behintzat.

Zer material, zer euskarri erabiltzen duzue lan mundua euskalduntzeko?

Plana diseinatzeko diagnosi bat egiten dugu lehenengo, eta hori egiteko badugu tresna bat: geure indize propioa. Tresna horrekin puntuazio bat ematen diogu euskararen erabilerari, bai orokorrean, bai arloz arlo: adibidez, barruko harremanetan, zerbitzuetan edo paisaian. Gero, helburuak jartzen ditugu puntuazioa igotzeko. Txepetxen eskema erabiltzen dugu, erabilera, ezagutza eta motibazioaren kontu horretan. Hiru faktore horiek elkarrekin komunikatuta daude eta hiruretan eragin behar da.

Adibidez, zuen lanean sartzen dira nominak edo oharrak euskaraz idaztea?

Enpresaren helburua barruko erabilera eta irudia hobetzea baldin badira, bai, horiek hiru adibide dira.

Eta enpresako lan terminologia euskaratzea?

Prozesu bat izaten da hori. Gure teknikariak enpresatan lanean ari direnean eta langileekin harremanetan jartzen direnean, sortzen den lehen beharretako bat terminologia propio baten beharra izaten da, askotan.

Hitz batzuk estandarrak izaten dira, baina, enpresa bakoitzeko lan-jarduna zein den ikusita, beste hitz batzuk asmatu egin behar dira. Teknikariek zirikatu egiten dituzte langileak hitz bat edo beste euskaraz nola esango luketen jakiteko, eta horrela hitza asmatzen dute; baina, aldi berean, langileari ere oso arrotza izango ez zaion hitza, gero ere erabiliko duena. Gainera, dena zentralizatzen saiatzen gara eta terminologia zabal baten datu base bat dugu.

Bestalde, azken bi urte hauetan, enpresa askotan eskuliburuak egin dituzte euskaratutako terminologiarekin. Esku-orrietan zituzten lehen eta liburuxka batean orain; honela, enpresa barruan txukun dute jasota hiztegia, eta kanpora begira ere baliagarria da.

Nolako balantzea egiten duzu lanean hasi zinetenetik?

Lau lagun izatetik 60 langile izatera pasatu gara; izugarrizko hazkundea izan dugu. Gure atzean, noski, bezeroak daude, eta honek esan nahi du bezero kopuruak ere igo egin duela.

Euskal Herri osoko 120 enpresa ingurutan egiten dugu lan. Badira batzuk, baina gure lurraldean zenbat enpresa dauden ikusita, oraindik hasiera baino ez dela konturatzen gara.

Hezkuntzan gero eta indartsuago dago euskara. Zergatik da gaztelania nagusi lan munduan?

Uste dut bi gauza hartu behar direla kontuan gai honetan. Batetik, egia da aurrerapauso handiak eman dituztela hezkuntza euskalduntzeko. Hala ere, badaude hutsuneak. Adibidez, Lanbide Heziketako ikasketa asko gaztelania hutsean daude oraindik, eta batzuetan zailtasunak izaten dituzte euskarazko taldeak osatzeko, Gipuzkoan zein Araban. Unibertsitate mailako ikasketetan ere ez da euskara ziurtatzen gai guztietan. Askotan agertzen dira unibertsitateko ikasleak protestan irakasle edo ikasgai euskaldunak eskatzen.

Bestetik, ikasle horiek enpresara joaten direnean gertatzen zaiena ikusi behar da. Adibidez, 100 lagun dauden enpresa batera sartzen da langile berri bat, euskaltzalea eta lana euskaraz egin nahi duena; langile berri hori enpresara egokitu behar da lehendabizi, eta enpresa horretan gaztelania bada nagusi, irentsi egiten du enpresaren sistemak berak langile berria. Enpresen sistemak eta politikak ez dira atzo goizekoak, ondo sendotuta daude eta oso zaila da bat-batean aldatzea.

Andoainen zabaldu duzue bulego berria. Zuen lana zabaltzeko?

Arrasaten du egoitza nagusia Emun kooperatibak, baina Euskal Herri osoko erreferenteak izan nahi dugu lan mundua euskalduntzen, eta inguru horretan, azken aldian, enpresa asko zabaldu direnez, erabaki dugu bulego berri bat zabaltzea inguru horretan. Horrela, batetik bezeroengandik gertuago egongo gara eta zerbitzu hobea eskainiko diegu eta, bestetik, teknikariek ere erosoago egingo dute lan, azken finean bezeroaren etxean lan egiten dutelako eta orain bulego bat dutelako lantegi horietatik gertu.

Martin Ugalde Kultur Parkean zabaldu duzue, leku esanguratsuan.

Aukera izan genuen eta aprobetxatu egin dugu. Kontseilua ere hortxe dago, gu hasieratik gara Kontseiluko kide eta bulegoa bertan zabaltzea erabaki genuen.

Euskararen normalizazioa da helburua?

Euskara normalizatzeko sektore eta arlo askotan dinamikak sortu behar dira. Guk arlo sozio-ekonomikoa euskalduntzeko ardura hartu dugu, eta horretantxe gabiltza.

Zeintzuk dira Emun kooperatibak dituen erronka nagusiak?

Bezeroei eskaintzen dizkiogun zerbitzu eta produktuekin lotuta, hobekuntzak sartzea bezeroaren beharrei eta nahiei aurrea hartzeko. Erakundearen eta Emuneko pertsonen garapena ere beste erronka bat da eta, noski, bezeroendako eta sektorearendako erreferenteak izatea Euskal Herri osoan.

GOIENKARIA
Egubakoitza / 2005eko apirilaren 22a

GOIENKARIA

Master 40 kategorian, argazkiko Jose Lopez aurrealdean ibiliko da. Elite mailan, berriz, Iñigo Roldan izango da jarraitu beharrekoa.

Mendiko bizikleta lasterketa, Murugainen magalean

Domekako proba Euskadiko Txapelketa barruan dago

XABIER URTZELAI

Bigarren urtez egingo dute Arrasaten Euskadiko Txapelketako lasterketetako bat Arrasaten. Eta ez hori bakarrik; domekako lasterketa Gipuzkoako Sari ere izendatu dute. Aurtengo proba, baina, berritasunekin dator, ez dutelako Musakolan egingo.

Murugaingo magalean egongo da aurtengo zirkuitua, Olandixoko lurretan. Lasterketa 11:00etan hasiko dute, Ikerlango aparkalekuan, eta, antolatzaileen esanetan, 200 lasterkari inguruk esku hartuko du, horietako 20 emakumezkoak. Ibilbideak zazpi kilometro luze izango ditu, eta antolatzaile lanetan dabilen Gorka Sudupek aurreratu digu zirkuitua aldatzearen zergatia: "Joan den urtekoak igoera gogorra zeukan eta, gero, malda handiko jaitsiera. Aurtengo lasterketa egiteko, Ederra taldeko ziklistek esan ziguten Olandixo inguruan zirkuitu polita egin zitekeela, gorabehera handikoa. Inguru horretan asko ibili gara, eta egia da joan den urteko zirkuitua baino politagoa dela aurtengoa".

ARRASATEKO ORDEZKARIAK

Talde moduan, Ederra Tabernakoak dira Arrasate ordezkatuko dutenak. Talde horretan daude Igor Lazkano, Igor Baz, Zigor Urain, Felix Zugasti eta Iñigo Roldan. Azken lasterkari hori, gainera, aurrealdean ibiliko da. Joan den urtean laugarren sailkatu zen Euskadiko Openean, eta aurten indartsu hasi du denboraldia, Kataluniako Itzulitik gorputzaldi onean etorri da-eta.

Ezin ahaztu nagusien kategorian lehiatuko den Jose Lopez. Ciclos Ikaiakoa Master 40an lehiatuko da, eta seguru hura ere aurrealdean ibiliko dela.

GUZTIRA, ZAZPI KATEGORIA

Domekako lasterketan zazpi kategoria izango dira. Elite, 23 urte azpikoak eta Master 30ekoak irtengo dira lehenengo, eta lau itzuli egingo dizkiote zirkuituari. Gero irtengo dira Master 40koak eta Juniorrak, hiru itzuli egiteko. Azkenik, kadeteek eta emakumezkoek bi itzuli egingo dituzte.

autonomoentzako eta mikroenpresetarako doako **mintegiak**

Nola egin online finantza erakundeekiko eragiketak

Debagoiena
apirilak 28
ARRASATE
Mondragon Goi Eskola Politeknikoa (Iraunkor)
Ordutegia: **18:00-20:00**

Jakin ezazu zer onura ekar ditzaketen Informazioaren Teknologia Berriek Enpresa Txikien kudeaketan.

Ordainketak, transferentziak, mugimenduak,... Edozein unetan eta banketxera joan beharrik gabe egin ditzakezu zure eragiketak Internet bidez, diru eta denbora gutxiago erabiliz.

Informatzeko eta izena emateko:
902 252 595
www.miramondigital.com
cursos@miramondigital.com

Antolatzailea:
Miramon Enpresa Digitala

Sustatzaileak:
Eusko Jaurlaritza Gobierno Vasco · Gipuzkoako Foru Aldundia Diputación Foral de Gipuzkoa · euskadi · e-gipuzkoa · SPRI

Kirolabur

SASKIBALOIA/MUGARRI ALKESA LOIUN

Federazio Kopan murgilduta dagoen Mugarri Alkesa saskibaloi taldeak Loiun jokatuko du bihar (18:00etan), Urdanetaren kontra. Arrasatekoak bigarren dira sailkapenean, Tabirako Baque taldearen atzetik, eta Urdanetakoak laugarren dira. Aurrealdeko postuetan egonda ere, lehenengo lau taldeen artean ez dago alde handirik, eta Zurututzaren mutilek ondo zaindu beharko dute hori. Tabirakok, berriz, Getxon ez du kontrariorik izango.

ATLETISMOA/ZORROA DOMINEKIN BETETA

Joan den asteburuan, ibarreko atletek gura beste domina ekarri zituzten Gipuzkoako Atletismo Txapelketatik. Oñatiko atleten artean, Yeray Varelak urrea eskuratu zuen 1.500 metroko lasterketan, Sandra Maneirok ere urrea 3.000 metroko martxan, eta Leire Irizarrek zilarra 1.500 metrotan. Arrasateko atleten artean, berriz, urrea irabazi zuten Ander Perezek 110 metroko hesi-lasterketan, eta Lander Errastik pertika jauzian. Brontzezko hiru dominak, berriz, Iñaki Etxagibelek jauzi hirukoitzean, Jon Ander Amadok 400 metroko lasterketan, eta Markel Blancok 1.500 metroko lasterketan irabazi zituzten.

ARETO FUTBOLA/ZIERBENA BEGIRA-PUNTUAN

Joan den astean lortu zuen Eskoriatzako areto-futbol taldeak mailaz igotzeko txartela. Geratzen diren bost norgehiagoketan, baina, taldearen tentsioak ez du behera egingo, lehenengo postuan amaitu gura dute-eta txapelketa. Horretarako, Zierbena taldea harrapatu behar. Oraingo asteburuan, eskoriatzarrek 12. postuan dagoen El Campillo talde gasteiztarraren kontra neurtuko dituzte indarrak. Domekan izango da norgehiagoka hori, Judizmendin, 18:00etan.

FUTBOLA/PREFERENTEA

Aretxabaletak eta Aloña Mendik jokatuko dute asteburuan etxean: UDAk bi puntu gehiago dituen Oriokoren kontra (domekan, 16:30ean); eta Aloña Mendik dagoeneko erregional mailan dagoen Oiartzunen kontra (domekan, 16:30ean). Mondrak Zubietara joan beharko du, bigarren postuan dagoen EHUren kontra lehiatzera (zapatuan, 18:00etan). Bergarak ere ez du kontrario makala izango, liderra izango du-eta zain, Tolosan (zapatuan, 16:30ean).

PILOTA/UDABERRI TXAPELKETAN, TXAPELDUNORDE

Aretxabaletako eta Eskoriatzako bi bikote izan dira Udaberri Txapelketako finaletan, baina bietako inork ezin izan du finala irabazi. Bigarren mailako senior mailan, Uriarte eta Oion pilotariek Villabonako pilotarien kontra jokatu zuten (20-22). Horrekin batera, kadete mailako Alex Oiartzabal eta Xabier Agiriano eskoriatzarrek 22-14 galdu zuten Azkoitiko ordezkarien kontra. Lan ona, dena dela.

FAGOR

FAGOR EDERLAN KOOP. E.
2005eko OHIKO BATZAR OROKORRA

Kontseilu Errektorearen erabakiz, Fagor Ederlan Koop Elkartearen Batzar Orokorra deitzen da. Batzarra Arrasateko Amaia antzokian egingo da 2005eko apirilaren 30ean, goizeko 9,30etan lehen deialdian eta, kasua balitz, bigarrenean 10etan, egun eta toki berean, ondorengo GAI ZERRENDA honekin:

GAI-ZERRENDA

1.- Akten onespenari buruzko txostena eta akordioa.
2.- Memoriaren irakurketa eta onarpena.
2.1.- 2004ko gestioari buruzko akordioa.
2.2.- 2005eko Gestio Plan eta Plan Estrategikoko politika eta estrategia orokorrak onartzea.
3.- Mondragón Automoción eta Fagor Taldeari buruzko txostenak.
4.- 2004ko Kontuen eta Balantzeen azterketa.
5.- 2004ko Emaitzen banaketa.
6.- Erregimen ekonomikoari buruzko xedapen estatutarioa.
7.- Kooperatibaren Estatutu Sozialen 11, 44, 51 eta 53 Artikuluen aldaketa.
8.- Kooperatibaren Barne Erregelamenduaren 33 eta 62 Artikuluen aldaketa.
9.- Kooperatibaren Barne Erregelamenduko 68. artikuluari buruzko aplikazioa, 1/2005 Araua.
10.- Heziketa eta Kooperatiba Sustapeneko Fondoa aplikatzeko irizpideak, 2/200 Araua.
11.- Kontseilu Errektorearen komunikazioak.
12.- Auditoreak izendatzea.
13.- Kontseilu Errektorea berritzea.
14.- Kontseilu Soziala berritzea.
15.- Eskariak eta erreguak.

Espresuki jakinarazten da bazkide guztiek dutela Estatutu Sozialei buruz proposatutako aldaketen testu osoa eta berorren txosten justifikatzailea egoitza sozialean aztertzeko eskubidea, eta dokumentu horiek berei dohainik eskuratu edo bidaltzekoa.

Eskoriatza, 2005eko apirilaren 15a.

KONTSEILU ERREKTOREKO LEHENDAKARIA

Gipuzkoako Klasikoan, Deskargak emango du lehen kolpea

155 lasterkari izango dira biharko lasterketan, Antzuolan

XABIER URTZELAI

Bihar, 15:00etan hasita, Gipuzkoako Klasikoa egongo da jokoan inguruko errepideetan. Espainiako Estatuko selekzioekin batera Gipuzkoako hainbat taldek hartuko dute esku. Lasterketa horren gainean berba egiteko Aiastui Peñako kide eta txirrindularitzan aditua den Joseba Lezetarekin izan gara.

Gazte mailako lasterketa izanda, Josebaren ustez gaitza da faboritoen gainean berba egitea: "Ez da erraza asmatzen, kategoria horietan gorabehera handiak izaten dira-eta. Joan den urtean uste genuen Valentziako eta Murtziako selekzioak zirela faborito, eta galiziar bat izan zen irabazlea. Gainera, bihar lasterketan izango ditugun txirrindulariek ez dute elkar ezagutzen, Espainiako Txapelketan baino ez direlako elkartzen. Ez da erraza faborito nor den aurreratzea".

Lasterketa Antzuolan hasiko da, eta handik Bergara aldera abiatuko dira eta Oñatira ondoren; bi aldiz egingo dute joan-etorri hori.Gero, Deskarga mendatea igo eta, Urretxutik eta Legazpitik igaro ondoren, Oñatira joango dira; handik, berriz, Uzarragako helmugara. Guztira, 99,5 kilometro izango ditu lasterketak.

DVko kazetariaren esanetan, lasterketan Deskarga izango da erabakigarria: "Deskargan indartsuenek egingo dute aurrera, baina ez dut uste norbaitek ihesaldia eginez gero Uzarragaraino bakarrik iristeko gauza izango denik, tartean kilometro asko daude-eta. Normalagoa izango litzateke Deskargan taldetxo batek ihes egin eta lasterketa Uzarragan erabakitzea".

BOST LAGUNEKO TALDEAK

Talde bakoitza bost lagunez osatuta egongo da eta, Josebaren esanetan, gaitza da bost lagunek tropel osoa kontrolpean izatea: "Horretarako txirrindulari gehiago behar dira. Uste dut talde batean bi edo hiru lasterkari gorputzaldi onean badaude, eurek egingo dutela aurrera, hor egon daiteke gakoa. Eta posible da hainbat taldek edo selekziok batera egitea lan, eta lasterketa azkeneko kilometroetan erabakitzea. Ikusten den moduan, aukera asko daude".

Ibarreko ziklismo zaleek izango dute nor animatu. Hantxe izango dira Euskadiko selekziokoak, eta baita ibarreko lasterkariz osatutako Sumofic taldeko txirrindulariak ere.

> "Deskargan onenek egingo dute aurrera, baina Uzarragan erabakiko da irabazlea"

> "Bost lagunez osatutako taldearekin gaitza da tropel osoa kontrolpean izatea"



GOIENKARIA

Txirrindulariek ia 100 kilometro egingo dituzte biharko lasterketan.

ASPEPELOTA
Goi mailako pilota ikuskizuna

CAPELLAN - AUXKIN // GALARZA V - APEZTEGIA
•
GONZALEZ - EULATE // DEL REY - GOÑI III
•
BERRAONDO - ARIZMENDI // CHAFEE - ZUBIETA

- **Eguna:** igandea, apirilaren 24a.
- **Ordua:** 17.00etan.
- **Lekua:** Bergarako Udal Pilotalekuan.

aspepelota.com



ORMAZABAL BARNE ARKITEKTURA

Sentitzeko modua, izateko modua

Ormazabal
BARNE ARKITEKTURA

Ormazabal Barne Arkitekturan, xumea konplexuaren gainetik ulertzen duen minimalismoan oinarritzen da. Estetika garbia eta funtzionaltasuna dira gure lanaren oinarri.

Hiru gune ditugu, Arrasate eta Oñati artean banatuak. Gure jarduera barne-diseinua eta gaur egungo altzariak dira. Gure lantaldeak zure leku eta beharretara egokitutako proiektua egingo dizu.

Ormazabal Barne Arkitekturak 5 sail ditu:
Sukaldeak, Zeramika, Bainugelak,
Etxea eta Argiztapena.

Ormazabal ARRASATE
Garibai | Tel.: 943 71 19 81

Ormazabal OÑATI
Sta. Marina 4 | Tel.: 943 78 30 58
Apaolaza A-2 | Tel.: 943 78 16 40

Sukaldea ulertzeko beste modu bat

Sukaldean eguneko ordu asko pasatzen dira. Apainduratan urria eta denboraz kanpoko estiloa aukeratuz gero arrakasta ziurtatuta dago.

Altzari asko mekanismo eta korronteen hartuneak ezkutatzeko diseinatuak daude, baina azken itxura, sukaldearen azala hain zuzen, garbia da. Sukalde minimalista aukera dotorea da gero; espazioarekin, zabaltasunarekin gozatzen dutenentzat egokia. Dotorezia eta funtzionaltasuna batzen dituen aukera paregabea.

Osaka sukaldea. *Sukaldea handiagoa egiten duten lerro horizontalekin diseinatua dago, eta argitasunaren eta iluntasunaren arteko nahaste ederrarekin osatua, altzairuaren ukitua duela. Modaz gain sekula gelditzen ez den estiloa. Lerro hutsak, zuri garbi-garbia, gardentasuna, osagai funtzionalak eta neutroak.*

Gaur-gaurko zeramika

Sukalde eta bainugelak janzteko zorroztasuna behar da aukeratzeko orduan. Segituan ikusten den gainazala da; hortaz, garrantzitsua da itxura zaintzea; era berean, iraun dezala eskatu behar zaio eta erraz garbitu ahal izatea.

Mosaikoa gaur-gaurko estaldura da, denboraz gaindiko bermea eta aberastasuna eskaintzen du hormetan. Koloreen eta itxuren arteko nahasketaren eraginez gelak bizitza eta estilo propioa hartzen du.

Mugimendua mosaikoaren jatorrian dago: koloreen tonuen arteko ezberdintasunek mugimendua duten irtenguneak sortzen dituzte.

SUKALDEAK: sukalde sortzaile eta finarentzat osagai berria.

BAINUGELAK: mosaikoa eta ura: mosaikoaren pieza txikiek era naturalean onartzen duten bikote perfektua. Gelek bizitza eta estilo propioak dituzte.



Etxea: dotorezia neurria hartzean dagoenean

Egongela da etxean gehien ikusten den gunea, baita denbora luzeen pasatzen dugun tokia ere. Bertan egiten ditugun jarduerak direla eta (irakurri, telebista ikusi, atseden hartu, hitz egin) egongela da altzariz janzteko eta apaintzeko tokirik zailena.

Modulu bidezko sisteman dago oinarrituta gure estiloa, txokorik pertsonalenei itxura emateko eta estilo zorrotzarekin janzteko sortua.

Apal ireki eta lakatuekin osatutako egitura. *Beirazko ate irristailua, ate handiak, tiradera eta apal zabalak, tamaina trinkoak eta lerro garbiak egiturak osatzeko orduan. Materialak: desugertutako haritza, wenguea eta lakatuak, bai distiradunak, bai mateak.*

Sofa edo besaulkia aukeratzea

Itxurarekin eta kalitatearekin batera beste ezaugarri bat ere kontuan hartu behar dugu aukeraketa egiterakoan: egongelan daukagun tokia eta antolamendua. Jarduerak erabakiko du altzariaren egitura eta tapizatuaren osagaia.

Era egokian txukuntzea

Armairu on batek metalezko oinarria duen egitura izan behar du, eta horrek altzariaren kalitatea bermatuko du. Armairuek aurrealde leunak dituzte nagusiki, eta era askotako akaberak azaltzen dituzte, beiradunak bereziki. Horrela, ateak ez dira hainbeste nabarmentzen material horrekin.

Bainugelak: funtzionaltasuna, ergonomia eta abangoardia

Bainugelaren plangintza egiterakoan komun-ontziak erabakigarriak dira. Gaur egun atal guztiak ez dira berdinak, merkatuan ugari daude eta era askotakoak. Batzuk zintzilikaturik, beste batzuk oina dutenak, badaude horman sartutakoak eta komun txikientzat bereziki diseinatutakoak.

Moduludun altzariak: *aldakortasuna, moldatzeko gaitasuna eta arintasuna. Bainugelako altzariek izango dituzten hiru ezaugarri dira mugitzeko askatasuna behar denean.*

Argitu baino zerbait gehiago

Argiztapena hein batean ukitu ezin den zerbait da, baita gela erabat alda dezakeen zerbait ere. Barneko gelak erosoak izan daitezen oso garrantzitsua da argi puntuak egoki jartzea.

Erabilera askoko guneak eta gela gero eta txikiagoak egiteko joera dagoela ikusita berrikuntzak datoz bai materialei, bai itxurari dagokienez. Diseinuko lanparak dira, argia emateaz gain goxotasunez betetzen dituzte hutsik dauden guneak, baita itzalita daudenean ere.

Offfiza: *mahai gainean zintzilikatutako lanpara jartzen da argitasun lausoa eman diezaion.*

Egongela: *mahai gaineko lanpara.*



Federico Garcia Lorca (Granada, 1898-1936), Esteban Urkiaga *Lauaxeta* (Laukiz, 1905-Gasteiz, 1937) eta Nikolas Lekuona (Ordizia, 1913-Fruiz, 1937): Euskal Herriko eta Espainiako urte klabe batzuetan bizi eta sortu zuten hiru artista horiek uztartuta agertzen dira Oñatiko ekintzaile batzuek euren omenez atera berri duten lan baten. *Ilargi Handi Zauri Zarae* du izena, eta disko, liburuxka eta DVD batek osatzen dute. Diskoak Lorcaren eta *Lauaxeta*-ren bost poematan oinarritutako abesti bana dakar; liburuxkak, poemak eurak, espainolez eta euskaraz; eta, horiek ilustratzeko, Nikolas Lekuonaren margolanak agertzen dira liburuxkan eta DVDan. Patxi Hipolito Oñatiko Udal Gazteria teknikariaren ekimenez atera da edizio hau, Oñatiko Udaleko Kultura, Gazteria eta Euskara Sailen laguntzarekin.

Lan hori aurkezteko kontzertua izango da bihar, hilak 23, Oñatiko gaztelekuan. Xabi Strubell musikariak egin ditu poemetan oinarritutako kantak, eta Zura bere taldearekin joko ditu Oñatin.

ANTZEKOTASUNAK

Lan xume, xalo eta era berean anbizioduna da. Lorca, *Lauaxeta* eta Lekuonaren heriotzatik ia 70 urte pasa direnean, euren lanak gaur egunekoa eta gozatzeko modukoa izaten jarraitzen du, eta hala erakusten du argitaratu berri den bildumak. Gerra aurreko urteetan egin zuten hiru artistek euren ekarpena, eta esperimentazio eta berritasun handiko urteak izan ziren haiek: pinturan eta literaturan, abangoardiako mugimenduak goraldian zeuden, eta artista batzuk ordura artekoarekin apurtzen ausartzen ziren. Hori izan zen Lorca, *Lauaxeta* eta Lekuonaren kasua, eta euren idatzi eta margolanek harridura eta interesa pizten dute gaur egun ere.

Beste antzekotasun bat da hiru sortzaileen bizitza eta lana 36ko gerrak bortizki eten zuela; hirurak hil ziren gerraren eraginez, gazte: Lorca eta *Lauaxeta*, fusilatuta; Lekuona, berriz, frontean erizain lanetan zebilela, bonba batek harrapatuta. Euren ideologia eta jarrera politikoa ere gogorarazten dute egileek; hala, *eraildako askatasunaren langileei* dago dedikatuta lana. Lorcaren eta *Lauaxeta*-ren frankismoaren aurkako ideiek fusilamendu paretara eraman zituzten; Lekuonak gogoz kontra jardun zuen Francoren tropendako erizain.

AURRERAKOIAK

Heriotz goiztiarrak, hala ere, ez du haien lana ilunpean utzi, alderantziz; hala erakusten du *Ilargi Handi Zauri Zarae* lanak. Egileen helburu bat da publiko zabalarendako moduko lan bat izatea, eta artista horiek horretarako baldintzak betetzen dituzte, duten modernotasunarengatik. Lorca eta *Lauaxeta* mito bihurtu dira eta euren lana indartu egin da urteak joan ahala; Jerardo Elortza proiektuko egileetako batek dioen bezala, frankistek "Lorca hil zuten bere iritzi eta jarrerengatik, baina ordurako lan handia eginda zuen eta oso ezaguna zen"; *Lauaxeta*-k, berriz, euskalgintzan gogoz jardun zuen, eta baita olerkigintzan ere, 30eko hamarkadako korronte berritzaileetan; Gasteizen kartzelaratu zuten eta Kartzelako Poemak idatzi zituen, 1974. urtera arte ezin izan zirenak argitaratu.

Nikolas Lekuona ezezagunagoa da: 24 urte besterik ez zituela hil zen. Hala izan ez balitz, bere izena oso entzuna izango litzatekeela diote adituek; Jerardo Elortzak esan zuen bezala, "adituek diote jenioa zetorrela; bere garairako oso abangoardista eta aurrerakoia zen". Egileek berau aukeratu zuten Lorcaren lanak irudikatzeko. Lorcak oso unibertso pertsonala zuen: sarri errepikatzen diren sinboloak dira ilargia, gaua, heriotza, zaldia… Marian Lizarralde Oñatiko Udaleko Euskara teknikariari bururatu zitzaion Lekuonaren izena. "Olerki oso grafikoak dira, eta Lorcaren sinboloak bisualizatzeko egokiak. Gainera, Lekuona Lorcaren garai berekoa da, eta garai berean desagertua", azaldu dute egileek. Liburuxkan agertzen diren lanek ematen dute bere modernotasunaren ideia: esate baterako, lan bat argazki konposizio bat da, oso surrealista estilo aldetik eta oso aurrerakoia teknikari dagokionez.

BITXIKERIAK

Lorcak izan zuen *Lauaxeta*-k egindako itzulpenaren berri: izan ere, euskal idazleak berak bidali zizkion itzulpenok, gutun batekin; gutuna ere liburuxkan agertzen da. Patxi Hipolitok dioskunez, ez ziren larregi hedatu: "Madrilgo aldizkari espezializatu baten izan nuen nik haien berri, eta Jon Kortazarrek artikulu bat idatzi zuen haien gainean". Granadarrak euskarazko bertsioak jaso eta sei hilabetera hil zuten. *Ilargi Handi Zauri Zarae* bildumak bost poema batzen ditu: *Cazador* (kanta *Ehiztari da*), *Canción del Jinete* (*Kordoba*), *Despedida* (*Agurra*), eta *Lauaxeta*-ren *Langile eraildu bati* eta *Artzain baten heriotzean*, guztiak liburuxkan batuta.

Lauaxeta-k Oñatirekin hartu-eman bat ere izan zuen: Aita Madina oñatiarrak *Artzain baten erijotzean* poesia hartu zuen abiapuntu moduan *Endecha* musika-lana konposatzeko. Asko izan dira artista horien lanak inspiraziorako hartu dituztenak eta, seguru, etorkizunean ere hartuko dituzte. **/15**

LEIRE KORTABARRIA

AZALA: IÑAKI ITURBE / JATORRIZKO IRUDIA: NIKOLAS LEKUONAK EGINDAKO ARGAZKIA (*IZENIK GABEA*. 1935)

Debagoieneko Euskal Eskola Publikoa

GOIESKOLA

instituto
IPINTZA
institutua

• **Batxilergoak**
-Natura eta osasun zientziak
-Giza eta gizarte zientziak
-Teknologia

Batzar informatiboa/ate irekiak
Apirilaren 26an, 18:30ean
Boni Laskurain 19 • Tel.: 943 76 31 42

Arrasate
INSTITUTUA

• **Batxilergoak** (D eta A ereduetan)
-Natura eta osasun zientziak
-Giza eta gizarte zientziak
-Teknologikoa
-Arte batxilergoa

Batzar informatiboa/ate irekiak
Apirilaren 28an, 18:30ean
Santa Teresa 25 • Tel.: 943 79 44 47/ 943 79 83 00

zuazola-larraña
Oñatiko b.h. institutua

• **Batxilergoak**
-Natura eta osasun zientziak
-Giza eta gizarte zientziak
-Teknologia

• **Heziketa zikloak**
Erdi mailakoak
-Mekanizazioa
-Makineria eta linea eroanbide en instalazioa eta mantentze-lan elektromekanikoa.
-Natura ingurumenean gorputz eta kirol ekintzak gidatzea

Batzar informatiboa/ate irekiak
Apirilaren 27an, 17:00ean
Zuazola Institutuko Areto nagusia
Aita Madina z/g • Tel.: 943 78 21 50

BATXILERGORAKO AURREMATRIKULAZIO EPEA ZABALIK

Apirilaren 25etik maiatzaren 6ra

ARRASATE INSTITUTUA

Batzar informatiboa / ate irekiak
Apirilaren 28an, 18:30ean
Helbidea:
Arrasate BHI
Santa Teresa 25
Tel.: 943 79 44 47 / 943 79 83 00
www.goieskola.net/arrasateinstitutua

IPINTZA INSTITUTUA BERGARA

Batzar informatiboa / ate irekiak
Apirilaren 26an, 18:30ean
Helbidea:
Ipintza BHI
Boni Laskurain 19
Tel.: 943 76 31 42
www.goieskola.net/ipintza

R.M. ZUAZOLA-LARRAÑA OÑATIKO BH INSTITUTUA
Batzar informatiboa / ate irekiak
Apirilaren 27an, 17:00ean
Helbidea:
Zuazola Institutuko Areto nagusia
Aita Madina z/g
Tel.: 943 78 21 50 / 943 78 12 08
www.onati.net

ARGITALPENAK/ 'ILARGI HANDI ZAURI ZARAE' DISKO ETA IKUS-ENTZUNEZKOA

Oñatiarrek, artista handiak gogoan

LORCA, 'LAUAXETA' ETA LEKUONAREN LANETIK ABIATUTA, DISKO, DVD ETA LIBURUXKA BAT AURKEZTU DUTE OÑATIN

LEIRE KORTABARRIA

Bihar, zapatua, kontzertu berezi bat izango da Oñatiko gaztelekuan, 22:30ean: hain zuzen, *Ilargi Handi Zauri Zarae* disko, DVD eta liburuxka aurkezteko kontzertu eta ikuskizuna izango da. Oñatiko euskara eta kultura ordezkari batzuek egindako lana da hori.

Joan den martitzenean, hilak 19, aurkeztu zuten egileek *Ilargi Handi Zauri Zarae* proiektua: Patxi Hipolito Oñatiko Udaleko Gazteria teknikaria; Marian Lizarralde Udaleko Euskara teknikaria; Roberto Maiztegi maketatzailea eta Jerardo Elortza idazlea.

Gerra inguruko urteetan Euskal Herrian eta Espainian jardun zuten hiru artistari omenaldia egiten dio lan horrek. Federico Garcia Lorca poeta andaluziarraren lan batzuk euskaratu egin zituen Esteban Urkiaga *Lauaxeta*-k, eta horiekin eta *Lauaxeta*-ren beraren poema batzuekin bost kanta egin dituzte. Poemak liburuxkan batu dituzte. Ikusteko alderdia Nikolas Lekuona artistaren margolanekin bete dute. Liburuxkan eta DVDan agertzen dira horiek.

Potxo Argitalzuloak eta Metak diskoetxeak argitaratu dute lana, eta Oñatin 75 ale salduko dituzte 12 eurotan liburu dendetan, Laixanen, Luis, Arrano eta Guria tabernetan eta turismo bulegoan. Kanpoan, 16 euro da prezioa.

Oñatiarrek Potxorekin ateratzen duten seigarren lana da –aurrekoek harrera polita izan dute–, baina berritasuna da Metak etxearen kolaborazioa.

LEIRE KORTABARRIA

Patxi Hipolito, Marian Lizarralde, Roberto Maiztegi eta Jerardo Elortza, martitzeneko aurkezpen ekitaldian, Oñatin.

SEI URTEKO LANA

Sei urteren buruan ikusi du argia lan horrek, eta bidean, kolaboratzaile askoren ekarpenak hura aberasten joan dira. "Proiektu xume bat zenak eskuetatik ihes egin digu", zioen Marian Lizarralde Oñatiko Udaleko Euskara teknikariak. Horrela bada, Oñatiko Udaleko Kultura, Gazteria eta Euskara Sailen laguntza izan du, eta bidean lagundu dutenen artean, Jerardo Elortza, Bitoriano Gandiaga (*Lauaxeta*-ren poemak gaurko euskarara moldatu dituzte) edo Xabi Strubell (poemak kanta egin ditu) agertzen dira, beste askoren artean.

Patxi Hipolito izan zen hasierako ekintzailea. "Lorca poetaren zale" aitortzen du bere burua, eta *Lauaxeta*-k itzulitako Lorcaren poemak kasualitatez ikusi zituenean izan zuen burutazioa. Roberto Maiztegik aurkezpenean azaldu zuenez, "dena anekdota moduan hasi zen: poemak antzeztea gura genuen, Xabi Strubell gertu egon zen musikatzeko… Urte askotako kontua da, eta pozik gaude emaitzarekin".

AURKEZPEN BIRA

Lana zabaltzea dute orain helburu. Horretarako, kontzertu bira txiki bat antolatu dute Euskal Herri osoan, Xabi Strubellen Zura taldearen eskutik. Poemen antzezpen batekin uztartzen da, Veronica Aguilera aktoreak egingo duena. Entzuteko, ikusteko eta gozatzeko ikuskizuna.

Zura eta Amodio

Zerbait desberdina entzun eta ikusi gura dutenendako aukera aproposa da bihar, zapatua, Oñatin egingo duten musika eta ikus-entzunezko saioa.

Zura taldeak musikatutako poemak joko ditu, eta baita euren abestiak ere. Xabi Strubell (Dut) gitarrajolearen proiektua da. Musika ausart, esperimental eta freskoa da. Xabi Strubell *Ilargi Handi*… proiektuarekin inplikatu zen haren berri izan zuenetik.

Amodio taldea da beste gonbidatua. Lisabö taldeko Javi Manterolaren proiektua da. Folk-popa da euren estiloa.

Patxi Hipolitok dioenez, "musika esperimentala, lasai entzutekoa" izango da nagusi, eta askorendako sorpresa izan daiteke, "Dut eta Lisabörekiko oso bestelako estiloa delako". Horrek ez du esan gura, ordea, publiko zabal batendako izango ez denik: "Diskoko kanta bat behin eta berriz ipintzen ari dira irratian egunotan", diosku Hipolitok.

DVDko irudiak emango dituzte, eta "antzerki beltz" delakoaren bidez, eszenatoki beltz baten kolorez betetako irudiak marraztuko ditu Verónica Aguilera aktoreak.

Gaurko gazteen euskara

Hainbat eskutatik pasatu dira poemak liburuxkan agertu arte. Izan ere, *Lauaxeta*-k Lorcaren poemak bizkaierara itzulita zituen arren, berriz moldatu behar ziren, 30eko hamarkadako idazlea baita *Lauaxeta*. Marian Lizarralde euskara teknikariak esan zuenez, "Oñatiko euskaratik urruti zegoen euskara hura, eta gure helburu bat zen lana euskara batuan hezitako gazteei hurbiltzea".

Horrenbestez, Bitoriano Gandiagarengana jo zuten laguntza eske. "Gandiagak batua, *Lauaxeta*-ren hizkera eta bizkaiera menderatzen zituen eta, ordurako gaixorik zegoen arren, gustura egin zuen lana", azaldu zuen Lizarraldek. Jerardo Elortza oñatiarrak ere lagundu zuen *Lauaxeta*-ren idazkera gaurkotzen. Euskarazko bertsio biak batzen ditu liburuxkak, jatorrizko espainolezkoarekin batera.

Lorcaren eta *Lauaxeta*-ren harreman hori liburuaren egituran bertan islatu dute egileek. Hain zuzen, bi zatitan banatu dute liburua: *Ilargi Handi* Lorcaren poemek osatzen dute, Esteban Urkiaga *Lauaxeta*-k euskaratuta; eta *Zauri Zarae* zatia, berriz, *Lauaxeta*-ren bi olerkik, Gandiagak egokituta. Liburuxkaren izenburua egile bakoitzaren poema banaren hitzek osatzen dute.



GOIENKARIA
Egubakoitza / 2005eko apirilaren 22a

Apirilak 22-29

Leire Kortabarria / Zuon ekitaldien berri iragarri ahal izateko bidali informazioa eguazteneko eguerdiko 12:00ak baino lehenago • Posta elektronikoa: **kultura@goiena.com** • Tel.: **943 76 03 97** • Faxa: **943 76 29 77**

DEIAK

ANTZUOLA

► **Larrialdien gaineko jardunaldia** izango da eguenean, hilak 28, ikastetxean, 18:00etan. Arnasbidea trabatzen denean zer egin irakatsiko dute.

ARETXABALETA

► **Irakurmaratoia** egingo dute eguenean, hilak 28, Kurtzebarrin.

ARRASATE

► **Bihotzaren osasunaren** gainean berba egingo du Alberto Rodríguez medikuak eguaztenean, hilak 27, eta eguenean, hilak 28, Monterronen, 16:30ean, Eroskiren Kontsumitzailearen Eskolaren barnean.

► **Pagoetara irteera** egingo du Emakume Txokoak eguenean, hilak 28.

► **Arrasate Institutuak** ate irekien eguna deitu du hilaren 28rako, eguena, 18:30ean.

► **Finantza erakundeekin eragiketak** zelan egin azalduko du Miramon Enpresa Digitalak eguenean, hilak 28, Goi Eskola Politeknikoan, 18:00etan.

► ***Euskal Herria bidegurutzean*** delako hitzaldia egingo du Victor Aleixandre kazetariak eguenean, hilak 28, Monterronen, 19:00etan.

DEBAGOIENA

► **CNT Gipuzkoak** dei egiten die debagoiendarrei maiatzaren 1eko ekitaldietan parte hartzera: mitinak, preso anarkisten omenezko bilkurak… Argibideak, 943 37 08 97 telefonoan.

ELGETA

► **Ardo-dastatze** jardunaldia izango da eguenean, hilak 28, Espaloia antzokian, 20:00etan.

ESKORIATZA

► **Uretako jolas parkea** izango da etzi, domeka, kiroldegian, 16:00-20:00.

► **Iraunkortasunerako Toki Foroa** aurkeztuko dio udalak herriari martitzenean, hilak 26, udaletxean, 18:30ean.

► ***Nola aurre egin agresibitate egoerei*** delako hitzaldia antolatu du Arizmendiko Guraso Eskolak martitzenerako, hilak 26, Jose Aranan, 18:00etan. HHko gurasoei dago zuzenduta.

► **Elikaduraren** inguruko hitzaldia egingo du Laura Alutizek eguaztenean, hilak 27, kultura etxean, 18:30ean.

► ***Helduak haurrekin liburuak konpartitzearen garrantzia*** hitzaldia egingo du Pello Añorgak eguenean, hilak 28, liburutegian, 18:30ean.

OÑATI

► **Etzi jokatzekoa zen arrantza txapelketa** bertan behera geratu da.

► ***Euskararen kalitatea: zertaz ari garen, zergatik eta zertarako*** delako hitzaldia egingo du Kike Amonarrizek eguaztenean, hilak 27, Txantxiku Ikastolan, 18:30ean.

► ***Arauak eta mugak*** delako hitzaldia izango da eguenean, hilak 28, Santa Eskolastikan, 19:00etan.

ERAKUSKETAK

ESKORIATZA

► **Argi eskultura** erakusketa ipiniko dute Ibarraundin hilaren 28an. Ordutegia: astegunetan, 09:00-13:30 eta 16:00-20:00; asteburu eta jaiegunetan, 12:00-14:00 eta 18:00-20:00.

MUSIKA

ARRASATE

► **I. Apirileko Musikaldiaren** barnean, honako emanaldiak izango dira: gaur, egubakoitza, Orpheus abesbatzarena, San Joan Bataiatzailearen Parrokian, 20:30ean; bihar, zapatua, Saxo Ensemble taldearena, Amaia antzokian, 20:30ean.

► **Painful (Zumarraga)** taldeak rock emanaldia egingo du gaur, egubakoitza, Gure Leku tabernan, 00:00etan.

► **3.60 aretoak** honako egitaraua du astebururako: gaur, egubakoitza, Meataka! festa, Asier, Haitz eta Koldo disko jartzaileekin, 00:00etan (5 euro); bihar, zapatua, Nuevo Catecismo Católico, Captain Nemo eta Quadrofenicos taldeak (6 euro), eta 03:00etan, Ene! eta Haitz disko jartzaileak.

► **Electra eta Noisex** taldeek joko dute bihar, zapatua, gaztetxean, 22:30.

BERGARA

► **Musika Astearen barnean,** hainbat emanaldi antolatu ditu Musika Eskolak egunotarako: gaur, egubakoitza, pianoa musika eskolan, eta Soraluze eta Bergarako gazte bandak, Espaloian; bihar, zapatua, kantu ikasleen emanaldia, Sierbetako elizan; etzi, domeka, Soraluze eta Bergarako gazte bandak, plaza zaharrean; eta astelehenean, soka ikasleen kontzertua, Sierbetako elizan.

► **Millencolin eta Streetdogs** taldeek emanaldia egingo dute gaur, egubakoitza, Jam aretoan, 20:00etan. 25 euro.

► **Last Resort, Ostiada Oi! eta beste talde batek** kontzertua egingo dute bihar, zapatua, Jam aretoan, 22:00etan. 16 euro, 14 aldez aurretik erosiz gero.

► **Jukebox** taldeak *We only wanna rock* diskoa aurkeztuko du bihar, zapatua, gaztetxean, 22:30ean. Stukas taldeak ere joko du.

► **Ima (TxillAut) eta Alain (Go Jam)** disko jartzaileek emanaldia egingo dute bihar, zapatua, Go Jam aretoan, 01:00etan.

ELGETA

► **Ruper Ordorikak** kontzertua egingo du bihar, zapatua, Espaloian, 22:30ean.

ESKORIATZA

► **Lau taldek** kontzertua eskainiko dute bihar, zapatua, gaztetxean, 17:30ean: Lost Girls, Agressive Combat, Drakes eta Trastorno Mental. Sarrera, 3 euro.

ANTZERKIA

ANTZUOLA

► ***7 gezurtxiki*** antzezlana egingo dute bihar, zapatua, ikastetxean, 22:00etan.

ARRASATE

► **Maite Franko ipuin kontalariak** 4-8 urte bitarteko umeendako ipuinak kontatuko ditu eguaztenean, hilak 27, Santa Marinako liburutegian, 17:00etan.

FAGOR

Fagor Arrasate Koop. E.

FAGOR ARRASATEKO OHIZKO BATZAR NAGUSIA

DEIALDIA

Data: 2005eko Apirilaren 29an, ostirala.
Ordua: Arratsaldeko 3etan lehen deialdia, eta 3 t´erdietan bigarrena.
Tokia: Gesalibarko "Aita Menni" Gaixotegiaren Batzar Aretoan, Arrasate.

EGUNEKO AZTERGAIAK

1. Aktak onartzeari buruzko informea eta erabakia.
2. Memoriaren irakurketa eta onarpena.
   2.1. 2004ko gestioari buruzko akordioa.
   2.2. 2005eko Gestio Plana eta Plan Estrategikoko politika eta estrategia orokorrak onartzea
3. Errektore Kontseiluaren komunikazioak.
4. Xafla deformazioko sektore taldekatzeari eta Fagor taldeari buruzko txostenak.
5. 2004ko kontuen eta balantzeen azterketa.
6. 2004ko emaitzen banaketa.
7. Erregimen ekonomikoari buruzko xedapen estatutarioak.
8. Kooperatibaren estatutu sozialaren 11, 44, 51 eta 53 artikuluen aldaketa.
9. Kooperatibaren barne erregelamenduaren 33 eta 62 artikuluen aldaketa.
10. Kooperatibaren barne erregelamenduko 68. artikuluari buruzko aplikazioa. 1/2005eko araua.
11. Heziketa eta kooperatiba sustapeneko fondoa aplikatzeko irizpideak. 1/2005eko araua.
12. Entitateen gaiak:
    12.1 – M.C.C.
    12.2 – Lan Kide Aurrezkia.
    12.3 – Lagun-Aro.
13. Kooperatibako kontu aztertzaileen izendapena.
14. Kontseilu Errektorea berritzea.
15. Eskariak eta galderak.

Jakinarazten da bazkide guztiek dutela Estatutu Sozialei buruz proposatutako aldaketen testu osoa eta haren txosten justifikatzailea egoitza sozialean aztertzeko eskubidea, eta, orobat, dokumentu horiek dohainik eskuratu edo bidaltzekoa.

Arrasate, 2005ko Apirila

Lehendakaria

► IKUSKIZUNAK

OSKORRI ETA KUKUBILTXOREN IKUSKIZUNA, KILOMETROEN ESKUTIK

Oskorri eta Kukubiltxo taldeek euren ikuskizun berria ekarriko dute Debagoienera. *Doktor Do Re Mi eta Benedizebra* izeneko espektakulua da, eta etzi, domeka, antzeztuko dute Arrasateko Uarkape frontoian. Kilometroak 2005ek antolatzen du ekitaldia. Ikuskizunaren oinarria Oskorrik Gipuzkoako ume kantuekin egin duen disko berria da, baina, umeendako ez ezik, "heldu argiendako" ere aproposa da, taldeek eurek dioten bezala. Ikuskizun bikoitza da: eszenatokian gertatzen dena eta umeek eurek, proposatuko dizkieten hamaika jolasen bitartez, eskaintzen dutena;40 lagunek esku hartuko dute. Sarrerak salgai daude aldez aurretik eta egunean bertan.

Non: Arrasateko Uarkape pilotalekuan. **Noiz:** etzi, hilak 24, domeka. **Ordua:** 18:00. **Antolatzailea:** Kilometroak 2005.

OÑATI

► **Pirritx eta Porrotx** pailazoek bi emanaldi egingo dituzte bihar, zapatua, kiroldegian: 16:30ean eta 18:30ean. Txantxiku Ikastolak antolatu du.

IKASTAROAK

ARETXABALETA

► **Pilates gimnasia eta spinning** ikastaroak antolatu ditu Zainduz gimnasioak. Pilates ikastaroa martitzen eta eguenetan da, 19:30ean. Spinning ikastaroa apirilaren 26 eta 28an eta maiatzaren 3an izango da, 17:00etan. Izena emateko, deitu 943 71 27 92 telefonora.

ARRASATE

► **Argazkigintza digital** ikastaroa antolatu du Emakume Txokoak, eta izenematea zabalik dago hilaren 25etik 29ra bitartean 943 79 41 39 telefonoan.

OSPAKIZUNAK

ARAMAIO

► **Liburuaren Eguna dela eta,** honako ekintzak antolatu dituzte: gaur, egubakoitza, *Singing Euripean* antzezlana, kultura etxean, 22:00etan; eta bihar, zapatua, bigarren eskuko liburuen azoka, plazan, 10:30-14:00.

► **Sagardogileen Eguna** ospatuko dute etzi, domeka. Herriko baserritarrek egindako sagardoa banatuko dute Herriko plazan, 11:30-14:00.

ARRASATE

► **Gaztetxearen 14. urteurrena** ospatzeko, gaur, egubakoitza, gazteen eta anorexiaren gaineko hitzaldia izango da, 19:00etan; eta bihar, zapatua, musika emanaldia.

BERGARA

► **Liburuaren Eguna dela eta,** liburutegia udaletxeko arkupean izango da gaur, egubakoitza, eta bihar, zapatua. Gaur, *Mattin* ilustratzaileak bere lana erakutsiko du, arkupean, 17:30ean.

OÑATI

► **Txantxiku Ikastolak** bertan behera deitu ditu gaur, egubakoitza, egitekoak ziren ekintzak. Bihar, zapatua, jolasparkea, gela irekien jardunaldia, antzerkia, erakusketa eta pailazoen emanaldia izango dira.

Zinema

ARAMAIO

■ **KULTURA ETXEA**

María, llena eres de gracia
Egubakoitza: 22:30.

Alicia en el País de las Maravillas
Domeka: 17:00.

ARRASATE

■ **AMAIA ANTZOKIA**

Los chicos del coro
Domeka: 19:30.
Astelehena: 20:30.

George eta dragoia
Domeka: 17:00.

Whisky
Eguena: 20:30.

Astelehena, ikuslearen eguna.

ELGETA

■ **ESPALOIA**

El lobo
Eguaztena: 21:30.

OÑATI

■ **KULTURA ETXEA**

Entre copas
Egubakoitza: 22:30.
Zapatua: 22:30.
Domeka: 19:30, 22:30.
Astelehena: 19:30.

Primavera, verano, otoño, invierno… y primavera
Eguena, zinekluba: 20:00.

Astelehena, ikuslearen eguna.

EIBAR

■ **UNZAGA**

La maldición
Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena, martitzena eta eguaztena: 19:30, 22:15.

Eguaztena, ikuslearen eguna.

■ **RIALTO**

Reinas
Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena eta martitzena: 19:30, 22:15.

Martitzena, ikuslearen eguna.

GASTEIZ

■ **GURIDI**

Sahara
17:30, 20:00, 22:30.

Be cool
Egubakoitza: 17:00.
Zapatua eta domeka: 17:00, 22:30.

La maldición
17:30, 20:00, 22:30.

Robots
17:00.

Frágil
17:30, 20:00, 22:30.

In good company
17:30, 20:00, 22:30.

Million dollar baby
19:45.

El gran golpe
17:00, 19:45, 22:30.

Bodas y prejuicios
Egubakoitza: 22:30.
Zapatua eta domeka: 19:45, 22:30.

■ **MIKELDI ZINEMAK**

La maldición
17:30, 20:15, 22:45.

Un canguro superduro
17:30, 20:15, 22:45.

Frágil
17:30, 20:15, 22:45.

Carta de una mujer desconocida
Egubakoitza: 17:15, 20:00, 22:30.
Zapatua eta domeka: 20:00, 22:30.

Hierro 3
17:30, 20:15, 22:45.

Robots
17:15.

Million dollar baby
17:15, 20:00, 22:30.

Hitch
17:20, 19:50, 22:35.

La casa de las dagas voladoras
17:15, 20:00, 22:30.

El penalti más largo del mundo
17:15, 20:00, 22:30.

Martitzena, ikuslearen eguna.

■ **FLORIDA-GURIDI**

Los edukadores
17:30, 22:30.

Hermanas enfadadas
17:00, 18:50, 20:40, 22:30.

Millones
17:30, 20:00, 22:30.

Mi querido Frankie
17:30, 20:00, 22:30.

15 días contigo
17:00, 18:50, 20:40, 22:30.

Samaritan girl
17:00, 18:50, 20:40, 22:30.

Reinas
17:30, 20:00, 22:30.

Hierro 3
20:00.

■ **ÁBACO-LAKUA ZINEMAK**

Hitch
17:00.

Robots
16:15, 18:15, 20:15.

Asalto al distrito 13
20:15, 22:30, 00:45.

Miss Agente Especial 2
16:15, 19:30.

El escondite
22:30, 00:45.

Blade trinity
22:30, 01:00.

Malevolence
16:15, 18:15, 20:20, 22:30, 00:45.

Los chicos del coro
16:00, 18:15, 20:20, 22:30, 00:45.

Un canguro superduro
16:15, 18:15, 20:15, 22:30, 00:45.

Be cool
16:45, 19:30, 22:15, 00:45.

La maldición
16:00, 18:15, 20:30, 22:45, 01:00.

Enamórate
16:00, 18:15, 20:30, 22:45, 01:00.

Gauerdiko saioak, egubakoitz eta zapatuan.
Eguaztena, ikuslearen eguna.

■ **YELMO CINEPLEX-GORBEIA**

Hitch
12:15, 16:00, 18:10, 20:25, 22:40, 00:55.

Reinas
12:15, 16:20, 18:25, 20:35, 22:45, 00:55.

La intérprete
12:15, 16:30, 19:00, 21:45, 00:30.

Los padres de él
19:50, 22:15, 00:35.

Million dollar baby
12:15, 16:35, 19:15, 21:50, 00:25.

Be cool
12:15, 16:00, 18:15, 20:30, 22:45, 01:00.

El gran golpe
12:15, 16:15, 18:15, 20:15, 22:15, 00:15.

Heffalump
12:15, 16:40, 18:10.

El escondite
22:40, 00:40.

Bob esponja
12:15, 16:10, 18:00.

Un canguro superduro
12:15, 16:05, 18:05, 20:05, 22:05, 00:05.

In good company
12:15, 16:05, 18:15, 20:25, 22:35, 00:45.

Saw
12:15, 16:25, 18:30, 20:35, 22:40, 00:45.

La maldición
12:15, 16:00, 18:00, 20:00, 22:00, 00:00.

Hotel Rwanda
19:45, 22:10, 00:40.

Robots
12:15, 16:40, 18:40, 20:40.

The ring 2
12:15, 16:10, 18:20, 20:30, 22:40, 00:50.

Gauerdiko saioak, egubakoitz eta zapatuan.
Eguerdiko saioak, domekan.
Astelehena, ikuslearen eguna (jaiegunak izan ezik).

■ **ÁBACO BOULEVARD**

La intérprete
12:15, 17:00, 19:45, 22:20, 01:00.

Sahara
12:00, 17:10, 19:40, 22:10, 01:00.

Robots
12:10, 16:15, 18:15.

El penalti más largo del mundo
12:15, 17:00, 19:30, 22:00, 00:30.

La maldición
12:00, 16:00, 18:00, 20:10, 22:15, 00:30.

Un canguro superduro
12:00, 16:10, 18:10, 20:15, 22:20, 00:30.

Million dollar baby
16:25, 19:30, 22:10, 01:00.

In good company
12:15, 16:00, 18:15, 20:30, 22:45, 01:00.

Hitch
12:10, 17:15.

El gran golpe
12:10, 16:00, 18:00, 20:00, 22:05, 00:30.

Be cool
12:00, 17:15, 19:45, 22:15, 00:45.

The ring 2
12:05, 17:10, 20:00, 22:20, 00:45.

Heffalump
12:20, 17:00.

Habana blues
20:10, 22:30, 01:00.

Reinas
12:10, 17:05, 19:45, 22:10, 00:30.

Gauerdiko saioak, egubakoitz eta zapatuan.
Eguerdiko saioak, domekan.
Eguaztena, ikuslearen eguna.

Entre copas: ●●●● / ***La casa de las dagas voladoras:*** ●●● /

ESKASA:● BALEKOA:●● ONA:●●● OSO ONA:●●●● BIKAINA:●●●●●

KRITIKA

LA INTERPRETE

PUNTUAZIOA: ●●●

ZUZENDARIA: Sydney Pollack.
AKTOREAK: Nicole Kidman, Sean Penn.

Sydney Pollack-ek, zinemaren munduan urte askotxo daraman zuzendariak, hainbat generotako filmak egiteko aukera izan du: *Danzad, danzad malditos; Tal como éramos; Tootsie; Memorias de Africa*... Landu duen generoetako bat *thriller* politikoa dugu. Halako filmak ugariak ziren 60-70 hamarkadetan. Garai horretan *Los tres días del condor* zuzendu zuen, eta orain, berriz, *La intérprete*-n, genero horretan agertzen ziren ezaugarriak erabiltzen ditu, nahiko film sendoa, dotore eta erakargarria lortzeko.

Gaur egun ez dira *thriller* politiko gehiegi egiten, filmatzen direnek ekintza eta eszena ikusgarriak dituzte osagai nagusi, istorioak ez dira gehiegi lantzen, eta lantzen direnean, askotan, gehiegi nahasten dira eta ez daude ondo kontatuak. Pollack-ek, 60-70 hamarkadetako *thriller*-etan ohikoak ziren osagaiak erabiltzen ditu: tentsioa mantentzeko beharrezkoa den argumentu konplexua, istorioa aurrera doan neurrian jakin-nahia areagotzen duten ezkututako datuak (Nicole Kidman-ek egiten duen pertsonaiaren iragana); eta amodio istorioa (filmean ezaugarri komun askotxo dituzten bi pertsonaien bizi paraleloak ikusten ditugu, eta ez



dakigu posible izango den, amodioaren bitartez, biak elkartzea). Horretaz gain, zuzendariak oso ondo mugitzen du kamera eta ederki jolasten du planifikazio mota desberdinekin, filmari behar duen erritmoa eta dotorezia emateko (autobusekoa eszena oso ona da). Noski, Pollack-en lan guztietan gertatzen den moduan, zinema munduan magnetismoa duten izarrekin lan egin du: Nicole Kidman-ek bere indarra erakusten du lehen planoetan, erdiko planoetan eta plano orokorretan. Azpimarragarria da, era berean, filmak munduari eta, batez ere, Ameriketako Estatu Batuei bidaltzen dien mezu aurrerakoia. *La intérprete*-k argi eta garbi esaten du mendekua ez dela ona, eta indarkeria erabiltzen denean, indarkeria jasaten duenari kalte egiteaz gain, azkenean, indarkeria erabiltzen duenaren kontra ere bueltatzen dela.

Aipatutako ezaugarriekin, lehen askotan, baina orain gutxitan ikusteko aukera dugun *trhiller* sendoa eta interesgarria lortzen da.

ANTONIO ZABALA

ORAIN, ZINEMA IKUSTEKO AUKERA PREZIO MURRIZTUAN
ASTEKO EGUN GUZTIETAN
Moztu txartel hau, eta sarrerak prezio murriztua izango du, zuretzat eta zure lagunarentzat
05/05/31ra arte baliagarria
SARREREN SALMENTA ServiCaixa 902 52 08 52 www.cinesabaco.com
BIKOTEKIDEA ZAIN DUZU
ÁBACO ABACO-N, ZURE EDALONTZIAK SARIA DAUKA, SEGURU !
www.cinesabaco.com

GERTU Inmobiliaria
Erdiko kalea 26
ARRASATE
943 79 12 79
Lehen, Imnof3

SALGAI

ARRASATE
- Zarugalde. 86 m2. Hiru logela, egongela, sukaldea, bainugela eta komuna. Ganbara. Igogailuarekin. Dena kanpoaldera.
- 77 m2. Hiru logela, egongela, sukalde-jangela, bi bainugela. Oso ondo dago, eta guztiz berritua.
- Erguin. 55 m2. Bi logela, egongela, sukaldea eta bainugela. Kanpoaldera ematen du. 31.900.000 pta, 191.723 euro.
- Arimazuri plaza. 67 m2. Bi logela ditu. Kanpoaldera ematen du. Garaje itxia.

ANTZUOLA
- 54 m2. Bi logela, egongela, sukaldea eta bainugela. Dena berrituta. 171.288 euro /28.500.000 pta.

BERGARA
- 60 m2. Bi logela, egongela, sukaldea eta bainugela. Trastelekua. 173.092 euro / 28.800.000 pta.

OÑATI
- Olakuan: 87 m2. Hiru logela, egongela, sukaldea eta bainugela. Igogailua. Etxe eguzkitsua da eta 15 m2-ko garaje itxia dauka.

ARETXABALETA
- Erdialdean: bost logela, egongela, sukaldea eta bainugela. Berritu beharra.
- Erdialdean: 50 m2. Bi logela, egongela, sukaldea eta bainugela. Egoera onean.

KEROSTI
INMOBILIARIA
Ibargarai 3 • BERGARA
Tel. / Faxa: 943 76 97 97
Santi Kutz 8 • LEGAZPI
Tel.: 943 73 05 25

ETXEBIZITZAK SALGAI
Bergara:
- Duplexa erdialdean 180 m².
- Martoko 85 m². Eguzkitsua.
- Zubiaurre 45m². Berrituta.
- San Pedro 150m². Ondo.
- Erdialdea 110 m². Oso ondo.
- Erdialdea 50 m². Berritzeko.
- San Pedro 110 m². Berritzeko.
- Bolu 90 m². Garajea.

Antzuola:
- Hamaika etxebizitza berri.
- Erdialdea 84 m². Garajea.
- 55 m². Ondo.
- 88 m². Garajea. Oso ondo.

BASERRIAK SALGAI
- Elosun, Angiozarren, Soraluzen eta San Juanen.

LOKALAK ETA GARAJEAK
Salgai eta errentan.

DEBA GARAIA
INMOBILIARIA
Telesforo Aranzadi 2
T: 943 76 21 80 F: 943 76 06 37
Zarugalde 1 Arrasate
T: 943 77 13 02 F. 943 73 12 40

ETXEBIZITZAK SALGAI
BERGARA:
- Erdialdea 72 m². Berritzeko.
- Duplexa, erdialdean 116 m².
- Masterreka 69m². Oso ondo dago.
- Erdialdea 78 m². Berrituta.
- Elorregi 64 m². Berritzeko.
- Zubiaurre 45 m². Erdi berritua.
- Erdialdea 153 m². Oso ondo.
- Duplexa, erdialdean 153 m².
- Aranerreka 82 m². Garajea.
- San Pedro 110 m². Berritzeko.

ANTZUOLA:
- Bustinzuri 88 m². Berria.
- 11 etxebizitza berri.

OÑATI:
- Erdialdea 83 m².

SORALUZE:
- Ezozi 83 m². Ondo dago.

BASERRIAK
- Elosua 246 m². Egoera onean.

1/ ETXEBIZITZAK

101. SALDU

Arrasate. 50 m²-ko apartamentua salgai. Erdialdean. 685 72 17 68.

Arrasate. Erdiko kalean, 120 m². Lau logela, bainugela bi eta bulegoa. 620 92 87 52.

Arrasate. Hiru logela, sukaldea, egongela eta bainugela. Bi terraza ditu. Erguin auzoan dago. 615 75 04 72.

Arrasate. Obenerreka kalean. 80 m². Hiru logela. Ganbara. 240.000 euro. 620 eurotan alokatzeko aukera ere bai. 619 80 77 12.

Bergara. Aranerrekan etxebizitza salgai. Hiru logela, sukalde-jangela, bi bainugela, terraza bat eta bi balkoi. Ganbara eta garajea ditu. Berogailua dauka. Prezio negoziagarria. 943 76 43 31.

Elgeta. Bi logela, bainugela, egongela eta ganbara ditu. Igogailua ere badu. 946 81 71 97 edo 645 71 76 25.

Oñati. 95 m². Hiru logela, egongela eta ganbara. Berrituta dago. 943 78 07 84 edo 635 75 62 02.

103. ERRENTAN EMAN

Arrasate. Erguin kalean. 20:00etatik aurrera deitu. 943 79 04 40.

Iragarki sailkatuak

943 76 92 71 edo *sailkatuak@goiena.com*

ARRASATE

ZERBITZARIA BEHAR DA. 667 53 08 16

ARRASATE

ASEGURU ETA INBERTSIOEN ENPRESA BATEN BEHAR DA
KOMERTZIALA
SOLDATA FINKOA + PRODUKZIO-PIZGARRIAK. INTERESATUOK BIDALI CURRICULUMA E-POSTA HONETARA: uluisma@mapfre.com

ARRASATE

ERDIALDEAN DAGOEN ILEAPAINDEGIA ESKUALDATZEN DA. PREZIO ONA. 943 79 18 06 943 76 73 38 Deitu 20:00etatik 22:00etara.

ARAMAIO

ZERBITZARIA BEHAR DA JATETXEAN LAN EGITEKO ASTEBURUETAN. 690 85 52 25

ANGIOZAR

ORTZI ERRETEGIA ALOKATZEN DA. 943 78 22 80 665 72 24 46

BERGARA

AUTOZERBITZUA ALOKATZEN DA JABEA ERRETIRATZEN DELAKO. 943 76 05 32

ARETXABALETA

ILE APAINTZAILEA BEHAR DA. 635 70 66 02

Arrasate. Hiru logela eta bi bainugela ditu. 635 73 27 74.

Benidorm. Apartamentua. 945 29 33 80.

Benidorm. Etxebizitza ematen da errentan Levante hondartzan. Igerilekua, garajea eta aire girotua ditu. 666 67 06 94.

Conil (Cadiz). Apartamentua alokagai. Maiatza, iraila eta urria. 680 44 26 68.

Conilen (Cadizen) apartamentua alokagai daukat. Bateles hondartzaren ondoan. Guztiz jantzia. Maiatzean, irailean, urrian eta ondorengo hilabeteetan dago alokagai. 680 44 26 68.

Costa Sancti Petri Chiclana (Cadiz). Apartamentua errentan, urbanizazio berrian. Deitu gauez. 616 14 65 54 edo 678 78 39 10.

Ezkarai. Apartamentua errentan.4-6 lagunendako. Maiatza-abuztua. Tel: 685721698. 685 72 16 98.

La Pineda (Salou). Etxebizitza alokairuan. Urbanizazio pribatua. Igerilekua. Hondartzatik 200 metrora. Abuztuaren 1etik 15era eta irailean. Telefonoa: 606 76 11 37 / 943 79 45 74. 943 79 45 74 edo 606 76 11 37.

Peniscolan apartamentua errentan ematen da, uztailan, abuztuan eta iralean. Hondartzatik 20 m-ra. Igerilekua eta aparkalekua. Telefonoa: 943 79 48 82.

Peñiscola. Apartamentua. 945 29 33 80.

Salou. Jaime I.a pasealekuan apartamentua alokagai. Jantzia. 629 98 98 99 edo 943 81 42 38.

Saloun apartamentua alokagai daukat. Jaime I. pasealekuan, Novelty eraikinean. Aire girotua, igerilekua, garajea eta terraza dauzka. 629 98 98 99 edo 943 81 42 38.

Torredembarra. Txaleta ematen da errentan, hamabost egun edo hilabeterako. Port Aventuratik 10 minutura. Igerilekua du eta lorategiz inguratua dago. Zazpi ohe. 635 71 06 39.

Vera (Almeria). Apartamentu tu jantzia ematen da errentan gune naturistan. Igerilekua. 657 73 94 25.

104. ERRENTAN HARTU

Arrasate. Bikote arduratsu batek etxebizitza hartu gura du errentan. 679 49 40 70 edo 616 14 01 42.

Bergara. Bi edo hiru logelako etxebizitza errentan hartuko genuke, jantzitakoa edo erdi jantzitakoa. Berogailuduna izatea nahiko genuke. 679 61 39 21.

105. ETXEAK OSATU

Arrasate. Etxebizitza osatzeko bizpahiru pertsona behar dira. Eguzkitsua. Iturriotz kalean. Unibertsitatetik hiru minutura. Sukalde zabala, etxetresna berriak, berogailu zentrala. Telefonoa: 669 78 27 01.

3/ LOKALAK

303. ERRENTAN EMAN

Durango. Erdialdean dagoen lokal komertziala alokagai. 946 81 53 69.

4/ LANA

401. ESKAINTZAK

Arrasaten etxeko lanak egiteko eta umeak zaintzeko emakume bat behar da. 696 54 24 20.

Debagoiena. Asteburuetan pertsona nagusi bat zaintzeko emakume bat behar da. 943 08 12 80.

402. ESKAERAK

Arrasate. Neska euskalduna prest ingelesezko klaseak emateko. Uda partean ere bai. 686 82 62 92.

Arrasate. Pertsona nagusiak zaintzeko prest nago. 679 71 34 37.

Neska eskaintzen da garbiketa lanak egiteko, tabernari edo sukaldari lana egiteko edo umeak eta adinduak zaintzeko. Beatriz. 943 71 21 15.

Neska eskaintzen da garbiketa lanak egiteko, tabernari edo sukaldari lana egiteko edo umeak eta adinduak zaintzeko. Doralia. 650 58 81 40.

Neska eskaintzen da garbiketa lanak egiteko, tabernari edo sukaldari lana egiteko edo umeak eta adinduak zaintzeko. Paula. Telefonoa: 626 56 80 73.

5/ IRAKASKUNTZA

502. EMAN

Aretxabaleta. Ingelesezko eskola partikularrak. Telefonoa: 943 79 03 83.

6/ MOTORRA

601. SALDU

California furgoneta salgai. 2000. urtekoa. 600 43 21 21.

Galloper Santano Comfort 2.0 autoa. 5 urte. SS-BG matrikula. 678 05 70 81.

Gas-Gas enduro motorra salgai. 250 cm³. 2002. urtekoa. Matrikulatua. Egoera onean. Jon. 943 79 23 34.

Honda Transalp 600 V motorra salgai. Oso ondo dago. Gauez deitu. Telefonoa: 946 23 19 26.

Honda XR 400 motorra salgai. 2001ekoa da eta ondo zainduta dago. 3.600 eurotan. 670 29 60 12.

Yamaha Virago motorra. 535 cm³. 14.000 km, sei urte. Oso ondo dago. 670 43 17 23.

Yamaha WR. 250 4T. BRR matrikuladuna, 2002koa. Oso egoera onean. Jabi. 943 79 89 82 edo 665 75 03 73.

603. ALOKATU

Ezkontzetarako Volkswagen Beetle Speedster Cabriolet autoa ematen dut errentan. Deitu gauez. 617 74 99 95.

7/ ANIMALIAK

701. SALDU

Txakurkumeak. Spaniel arrazako txakurkumeak salgai. 943 78 03 08 edo 656 74 80 47.

8/ DENETARIK

801. SALDU

Arkua. Arku-tirorako. Poleaduna. Egoera onean eta merkea. 653 70 83 99.

Emaztegai soinekoa salgai daukat. Marfil kolorekoa. 42-44 neurrikoa. 480 euro. 943 08 00 81 edo 615 72 64 30.

Umeendako bizikleta salgai, BH markakoa. Atzealdean jartzen diren gurpiltxo eta guzti. Egoera onean dago, eta merke. 943 77 00 43.

Garbi S.L.

PIPIEN, TERMITEN, ETA ABARREN AURKAKO TRATAMENDU ANTIXILOFAGOAK EGURREAN, ALTZARIETAN, ETA ABARRETAN.

943 33 18 37 (HERNANI)
649 84 67 09 (BERGARA)

Bergarako Udala

Bergarako Udala, lehiaketa-oposizio bidez, aldi baterako itzultzailea kontratatzera eta itzultzaileen lan-poltsa osatzera doa.

Izangaien baldintzak:
- Unibertsitateko diplomatua izatea.
- 4. Hizkuntz Eskakizunaren jabe izatea.

Eskariak aurkezteko epea:
- 2005eko maiatzaren 6ko eguerdiko 13:30ak arte.

Oinarriak Udaletxeko Idazkaritzako bulegoetan.

Bergaran, 2005eko apirilaren 19an.

ALKATEAK

Lan eskaintza

HERRIKO KOMUNIKABIDEAK kooperatibak lan eskaintza bat egiten du honako helburu honekin.

Eginkizuna:
Herrikoko bazkideen beharrak eta estali gabeko gabeziak antzeman ondoren, etorkizunera begira proiektu bat landu eta aurkeztea Errektore Kontseiluko kideen laguntzarekin.

Eskatzen da:
- Gestio arloko prestakuntza izatea.
- Ofimatika eta internet ezagutzea
- Lan taldeetan txertatzeko eta lan egiteko gaitasuna.
- Harremanetarako gaitasuna.
- Euskara ondo menperatzea.
- Gidatzeko karneta eta autoa.

Baloratuko da:
- Irudimena eta lanerako gaitasuna.
- Administrazio lanetan aritu izana.
- Hedabideen munduan aritu izana.
- Euskal hedabideak ezagutzea, tokikoak barne

Lan baldintzak
Egun osoko lana.
6 hilabeterako kontratua lana aurkeztu eta abian jartzeko lehen urratsak emateko. Luzagarria egitasmoak aurrera egingo balu eta hautatua eta HERRIKO ados baleude.
Lanlekua: Abadiño

Bidali curriculuma apirilaren 22a baino lehen:

HERRI KOMUNIKABIDEAK KOOP. ELK.
Arlozabal 8 bis, 1C
48220 Abadiño
Bizkaia

Informazio gehiago:
94 621 58 16
zuzendaritza@topagunea.com

ULMA

ULMA Packaging-ek, Packaging Prozesuen automatizazioan liderra denak, ondoko profil profesionala duen pertsona behar du euren enpresaren zabalkunderako:

MUNTATZAILEA
REF. 04/05:

Eskatzen da:

- Mekanikan eta Elektronikan/Elektrizitatean ezagutza (Goi Mailako Heziketa Zikloa)
- Iniziatiba izatea eta harremanetarako eta taldean lan egiteko gaitasuna izatea
- Bezeroari zerbitzu teknikoa eman behar zaionean, bere instalazioetara joateko prestutasuna
- Ingelesa ezagutzea baloratuko da

ULMA Packaging
Giza Baliabideetako Saila
145 posta-kutxa
20560 Oñati

IEFPS Aretxabaleta GLHBI

Enpresetako Giza Baliabideen Beharretarako Prospekziogilea behar du.

Eskatzen dena:
- Lizentziatura
- EGA
- Debagoienean bizilekua izatea
- Enpresetako beharren prospekzioan esperientzia izatea balioetsiko da.

Eskaintzen dena:
- Lanaldi erdia (Maiatzetik aurrera)
- Lanpostuaren kokalekua: Aretxabaletako Lanbide Heziketa Institutua, Eusko Gobernuko Orientazio Zerbitzuko Zentro Laguntzailea.
- Lanpostuaren Funtzioak: profil profesional eta heziketa beharren prospekzioa, eta Lanbideko lan eskaintzen kudeaketa Debagoienean.

Curriculuma bidali:

Aretxabaletako Institutua
Etxebarri Auzoa z/g.
(20550) Aretxabaleta.

E-posta.: ia@iaretxabaleta.com

HILDAKOAK

Gregoria Telleriarte Basterretxea. Bergaran, 14an. 80 urte.
Barbara Gantxegi Lizarralde. Bergaran, apirilaren 15ean. 92 urte.
Fernando Azkargorta Zelaia. Bergaran, apirilaren 15ean. 95 urte.
Isidora Lizarralde Alberdi. Bergaran, apirilaren 16an. 97 urte.
Manuel Sanchez Tena. Arrasaten, apirilaren 17an. 75 urte.
Jose Luis Linzoain Ilarduia. Bergaran, apirilaren 18an. 76 urte.
Fermin Arabaolaza Arriola. Arrasaten, apirilaren 19an. 91 urte.
Salbadora Trojaola Ugarte. Arrasaten, apirilaren 19an. 88 urte.
Vicenta Lizarralde Zabaleta. Bergaran, apirilaren 19an. 92 urte.
Ane Miren Telleria Iñurritegi. Oñatin, apirilaren 20an. 22 urte.
Aitor Oñate Aiastui. Oñatin, apirilaren 20an. 20 urte.
Mikel Urtzelai Aiastui. Oñatin, apirilaren 20an. 22 urte.
Amaia Uriarte Urtatza. Oñatin, apirilaren 20an. 24 urte.

Laura Castelo eta **Alberto Agiriano** Musakolako San Isidro elizan ezkonduko dira bihar, apirilak 23. Ondoren lagun eta senideekin ospatuko dute. Zorionak bioi, lagunen partetik!

Cristina Lete eta **Floren Gurutzeta** eskoriatzarrak 1955eko apirilaren 25ean ezkondu ziren. Urrezko ezteiak ospatzeko meza izango dute apirilaren 24an, 12:00etan, Eskoriatzako parrokian, eta ostean bazkaria egingo dute Gure Ametsa jatetxean. Zorionak etxekoen partetik!

URTEURRENA

Jose Luis Miner Arrieta

Hirugarren urteurreneko meza domekan, apirilaren 24an, 12:30ean, Bergarako San Pedro elizan.

Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

ESKER ONA

Fernando Azkargorta Zelaia

Tito

Donostian hil zen 2005eko apirilaren 15ean, 55 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara joandakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.

Bergaran, 2005eko apirilaren 22an.

ESKER ONA

Jesus Oskotz Gandiaga

Euban hil zen 2005eko apirilaren 12an, 84 urte zituela.

Eskerrik beroenak hileta elizkizunetan lagundu gintuzuenoi, baita etorri ezinik zuen adiskidetasuna eta doluminak luzatu dizkiguzuen guztioi ere.

Oskotz Encalado familia.
Arrasaten, 2005eko apirilaren 22an.

MEZA

Oihana Torrealdai Lopez

Lantziegon istripuan hil zen 2005eko apirilaren 15ean, 27 urte zituela.

Haren arimaren aldeko elizkizuna eguenean izango da, apirilaren 28an, 19:00etan, Arrasateko San Juan Parrokian.

Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

ESKELA

Mikel Urtzelai Aiastui

Oñatin hil zen 2005eko apirilaren 20an, 22 urte zituela.

Garai batean lankide eta
guztion lagun izana
zorigaiztoko istripu batek
urrun zaitu eramana
gure ondotik joan zara baina
zurekin ezta joan dana
gure artean gelditzen baita
zuk utzitako aztarna.

Santa Cruz-eko langileak.
Oñatin, 2005eko apirilaren 22an.

ESKELA

Mikel Urtzelai Aiastui

Oñatin hil zen 2005eko apirilaren 20an, 22 urte zituela.

Ez nau izutzen negu hurbilak
uda beteko beroan
dakidalako irauten duela
orainak ere geroan



Zure gurasoen lagunak.
Oñatin, 2005eko apirilaren 22an.

ESKELA

Aitor Oñate Aiastui
Ane Miren Telleria Iñurritegi
Amaia Uriarte Urtatza
Mikel Urtzelai Aiastui

Oñatin hil ziren 2005eko apirilaren 20an

ULMAko bazkide eta langileok bat egiten dugu familiartekoen minarekin.

ULMA

Oñatin, 2005eko apirilaren 22an.

ESKELA

Amaia Uriarte Urtatza

Oñatin hil zen 2005eko apirilaren 20an, 24 urte zituela.

Betiko gure gogoan.

Rebekaren koadrilako lagunak.
Oñatin, 2005eko apirilaren 22an.

0000 km
Mondeo
C-Max
Fiesta
Hauxe da aukera!
MUGARRI
Araba Etorbidea, z/g
ARRASATE
www.mugarri.es
Ford
gozatzeko pentsatuak irauteko eginak

Hemen GARBIKETAK
Garbiketetan profesionalak gara
www.hemen-garbiketak.com
Intxartxueta 16 behea
ESKORIATZA
Tel.: 943 71 48 45
Faxa: 943 71 30 58

MEMESA
INDUSTRIA HORNIDURAK
ARRASATE TEL.: 943 712 425 FAXA: 943 712 297
ARETXABALETA TEL.: 943 712 411 FAXA: 943 712 004
OÑATE TEL.: 943 718 080 FAXA: 943 718 045
SEIN
grupo taldea
Euskadiko erreferente nagusia
industria horniduran

IRAGARPENA

ZAPATUA, 23 / Max.: 15º / Min.: 9º/

Egunaren lehenengo partean zerua tarteka hodeitsu egongo da eta han-hemenka zaparrada arinak eroriko dira. Arratsaldean, berdin jarraituko du, lainotsu eta euri arinarekin. Haizeak hegoaldetik joko du eta tenperaturak ez du aldaketarik izango.

DOMEKA, 24 / Max.: 13º / Min.: 7º/

Goizaldean zerua hodeitsu egongo da eta euri arina egingo du. Arratsaldean zerua hodeitsu edo oso hodeitsu geratuko da eta euri arin-ertaina egingo du. Azken orduetan, baina, hodeiak gutxitu eta atertze aldera egingo du. Tenperatura gutxi edo moderatuki jaitsiko da.

ZIKLOIAK / ANTIZIKLOIAK

Isobara arteko zikloiak eta antizikloiak

Isobara mapek antizikloien eta zikloien gaineko informazioa ematen digute. Era berean, fenomeno bi horiek egingo duen eguraldia iragartzeko oso baliagarriak dira.

Antizikloiak ordulariaren orratzen noranzko berean biratzen diren airezko nukleo itxiak dira. Antizikloiaren baitan aireak beherantz egin, konprimitu eta hezetasuna lurruntzen du. Horregatik, antizikloia dagoen lekuan ez da lainorik izaten.

Behe-presioko guneetan, berriz, zikloiak edo ekaitz gogorrak marrazten dira. Horiek atmosferako aireak behe-presioko gune baten inguruan egiten duen biraketa-mugimenduak dira, haize gogorrak eragiten dituztenak. Zikloiak, oro har, latitude guztietan gertatzen dira eta Isobara-mapetan B letrarekin irudikatzen dira. Antizikloiak, bestalde, A letrarekin. Behe-presioko guneetan, goikoetan ez bezala, airea ordulariaren orratzen alderantzizko noranzkoan biratu eta leku hotzagoetara igotzen da. Horrela, airea hoztu eta lainoak sortzen dira. Zikloiak mendebaldetik ekialdera mugitzen dira.

Honako erakunde hauek emandako informazioa:

euskalmet
euskal meteorologi agentzia

aurrera doan herria — un país en marcha
EUSKO JAURLARITZA — GOBIERNO VASCO
GARRAIO ETA HERRI LAN SAILA — DEPARTAMENTO DE TRANSPORTES Y OBRAS PUBLICAS

www.euskalmet.net

HITZGEZIDUNAK

Luma



			Kirten / *Izena		Mendi nafarra / Suari d ariona		Lurra iraultzeko lanabesa
			Norena atzizkia / Harrimena				
Gorespena, laudoa / Zorrotza, argia		Otea hazten den toki / Lili					
					Abantzu / Korta, ukuilu		
Modu atzizkia / Zapatu, ebiakoitz			Joan den urtea / Unnilseptioa				*Deitura
Zegoen / Jadanik				Abagune, aukera / Suitzako ibaia			
		Infin., saldu / Mintzo, berba				Boroa / Jagole	
Rhesus faktorea / Eritreako herritar			Arrotz / Torturaren Aurkako Taldea				
Juntagailua / Fruitu mota				Ginebra / Area			

BILABILA7

UMOREGIROAN

Kike Amonarriz

TUTTI ATHLETI!

Bi tolosar hauek, asteburua pasatzera Bilbora joan dira. Gaua iritsi eta Tutti Athleti! bertoko jatetxe italiarrera sartu dira.

Zerbitzariak karta eman eta ez dute denbora luzerik behar izan aukeraketa egiteko:

– Nik spagettoak eta nire adiskideak ravioloak.

– Oso ongi. Dena dela, ez gaizki hartu, baina...–esan die zerbitzariak edukazio handiz- ez da spagetto eta raviolo esaten, spagetti eta ravioli baizik.

– Oso ongi, orain esaidazu non dauden komunik, kaki egin nahi nuke eta.

BIDEA

Senar-emazteak ohean daude. Senarra kirol egunkari bat ari da irakurtzen eta emaztea, berriz, 600 bat orriko eleberria. Bat-batean, gaueko ordu horietan, etxeko telefonoak jo du. Senarrak ezkerreko besoa luzatu eta hartu egin du:

– Bai, nor da?

– (...)

– Eta nik zer dakit!

Senarrak telefonoa zintzilikatu eta, hitzik ahoskatu gabe, "nor zen eta zer nahi zuen" galdera aurpegia duen emazteari:

– Jende eroa badabil oraindik ere munduan: trenkonpainiako norbait edo trafikoko arduradunen bat izango zen.

– Zer dela eta?

– Bidea libre ote dagoen galdetu dit eta!

SOLUZIOAK

G	A	Z	T	A	I	N	A
●	E	T	A	●	G	I	N
E	R	I	T	R	E	A	R
●	R	H	●	A	T	Z	E
J	A	●	S	A	L	●	B
●	Z	E	N	●	E	R	A
L	A	R	U	N	B	A	T
●	R	O	●	I	A	Z	●
Z	O	L	I	A	●	I	A
●	G	●	O	T	A	D	I
			●	R	E	N	A
			M	I	K	E	L
			●	G	●	M	●



Apirilaren 25a: 040 zozketa

Harpidedunen **txokoa**

Sariak astero!

Astelehenean, apirilak 25, sari hauek izen-abizenak izango dituzte.
Asteleheneko Goienkaria-ren harpidedun bazara, adi:

Zeu izan zaitezke sari hauen irabazleetako bat!

Apirilaren 25ko sariak



- Bi gonbidapen FLORIDA-GURIDI zinemetara joateko eta beste bi gonbidapen Gasteizko San Prudentzio kaleko BOCATTAn bi menu jateko (saridun bakoitzari bi emango zaizkio).

'LAUBURUA'
Mahai jokoa
Argia argitaletxearen eskutik

BALDINTZAK

- *Asteleheneko Goienkaria*-ren harpidedun izatea da baldintza bakarra.
- Irabazleekin gure harpidetza saila jarriko da harremanetan.

Harpidedun egiteko:
902 36 38 51
Astelehenetik egubakoitzera, 09:00etatik 21:00etara.

Kuota:
Harpidetza kuota, 35 euro
2005 osoko harpidetza kuota.

ASTELEHENEKO **Goienkaria**
astelehenean, **aste bukaera osoa**

039 zozketa **saridunak**

Hauek izan dira aurreko zozketako irabazleak.
Zure izena zerrendan badago, ZORIONAK!

Bi gonbidapen FLORIDA-GURIDI zinemetara joateko eta beste bi gonbidapen Gasteizko San Prudentzio kaleko BOCATTAN bi menu jateko (saridun bakoitzarendako bi).
- Juan M. Agirre Zubialdea (Bergara)
- Nieves Goirizelaia Arruza (Bergara)

Kike Amonarrizen '888 TXISTE' liburua
- Jon Agirreurreta Etxenagusia (Bergara)

'Ilunpean'

EGUBAKOITZA 22 / **21:00 eta 22:30**

Jabier Retegiri elkarrizketa 'Ilunpean' saioan

Eusko Ikaskuntzako presidente Jabier Retegi elkarrizketatu du Oihana Elortzak *Ilunpean* saioan. Jabierrek orain arte egin dituen lanen gainean hitz egingo du. Hezkuntza, ikerketa eta industria alorrean ibili da, besteak beste.

'Errugbia'

ZAPATUAN ETA ASTELEHENEAN /* **ikus beheko taula**

Ordiziako errugbi taldea, ohorezko mailara

Ordiziako errugbi taldeak ohorezko mailan jokatuko du datorren denboraldian. Liceo Frances taldearen aurka jokatutako partidua irabazi eta gero lortu du igoera. GOITBk partidu hori eskainiko dizue zapatuan.

'Baneki'

ASTELEHEN ETA EGUENETAN / **21:30 eta 23:00**

Ikusleendako SMS lehiaketa duzue 'Baneki'-n

GOITBk martxan jarri duen *Baneki* saioan ikusleek ere aukera dute honako galdera erantzun eta saria irabazteko: Debagoieneko zein herritan dago 12 tutu dituen iturria? Bidali erantzuna GTB (hutsunea) erantzuna 7744 zenbakira.

'Debarri'

MARTITZENA 22 / **21:30 eta 23:00**

Antzuolako alkateari elkarrizketa 'Debarri'-n

Alberto Gorritibereak Antzuolako kontuak izango digu berbagai *Debarri* saioan. Alkateari elkarrizketa egingo dio, eta betiko moduan, herritarrek ere aukera izango dute telefono edo Internet bidez euren galderak egiteko.

TELEBERRIAK

Milioi eta erdi ikus-entzule dituzte EITBko hedabideek

Aurtengo hiruhilekoan milioi eta erdi ikus-entzule baino gehiago izan ditu EITBk. Horixe dio Estudio General de Medios (EGM) erakundeak. Radio Euskadik 278.000 entzule ditu, iaz baino 7.000 gehiago: Euskarazko irratiei dagokienez, 109.000 pertsonak aukeratzen dituzte egunero Euskadi Gaztea eta Euskadi Irratia; Araban, berriz, Radio Vitoriak jarraitzen du lehen postuan eta 35.000 lagunek entzuten dute egunero; EITB Irratia aste osoan 27.000 lagunek entzuten dute. Bestalde, telebistari dagokionez, Euskal Telebistako kateek milioi bat ikus-entzule baino gehiago dituzte: ETB2k 831.000 egunero, eta ETB1ek, 276.000.

ASTEKO PROGRAMAZIOA/ Apirilaren 22tik 28ra

Goitb Goiena Telebista

EGUBAKOITZA 22	ZAPATUA 23	DOMEKA 24	ASTELEHENA 25	MARTITZENA 26	EGUAZTENA 27	EGUENA 28
13:20 **Baneki** 13:50 **Marrazki bizidunak:** Sherezade 14:10 **Marrazki bizidunak:** Lazkao Txiki 14:15 **Berriak Aurrerapena** 14:30 **Behazulo** 15:00 **Auñamendietan** 15:30 **Berriak Aurrerapena** 15:45 **Klip@** 19:30 **Emisio hasiera** 19:35 **Gaurkoak** 19:45 **Klip@** 20:00 **Berriak** 20:30 **Marrazki bizidunak** 21:00 **Ilunpean** 21:30 **Eguzki lore** 22:00 **Berriak** 22:30 **Ilunpean** 23:00 **Eguzki lore** 23:30 **Gaurkoak** 23:45 **Emisio amaiera**	11:05 **Behazulo** 11:35 **Errugbia:** Ordizia-Liceo Frances 12:00 **Baneki** 12:35 **Marrazki bizidunak:** Sherezade 13:40 **Baneki** 14:10 **Marrazki bizidunak:** Lazkao Txiki 14:30 **Auñamendietan** 15:05 **Filma:** Mamuen ipuinak 16:00 **Baneki** 16:30 **Eguzki lore** 17:00 **Jaun ta jabe** 17:30 **Klip@** 17:45 **Behazulo** 18:15 **Baneki** 18:45 **Marrazki bizidunak:** Sherezade 20:00 **Ilunpean** 20:30 **Emisio amaiera**	11:05 **Filma:** Mamuen ipuinak 12:00 **Marrazki bizidunak:** 03 Patrulla 13:10 **Marrazki bizidunak:** Lazkao Txiki 13:25 **Ilunpean** 13:55 **Auñamendietan** 14:30 **Eguzki lore** 15:00 **Filma** 15:50 **Jaun ta jabe** 16:20 **Marrazki bizidunak:** Sherezade 17:45 **Klip@** 18:00 **Baneki** 19:00 **Eguzki lore** 19:30**Auñamendietan** 20:00 **Marrazki bizidunak:** 03 Patrulla 20:45 **Baneki** 21:15 **Emisio amaiera**	13:50 **Marrazki bizidunak:** Sherezade 14:10 **Marrazki bizidunak:** Lazkao Txiki 14:15 **Berriak Aurrerapena** 14:30 **Ilunpean** 15:00 **Eguzki lore** 15:30 **Berriak Aurrerapena** 15:45 **Klip@** 19:30 **Emisio hasiera** 19:35 **Gaurkoak** 19:45 **Klip@** 20:00 **Berriak** 20:30 **Marrazki bizidunak** 21:00 **Baneki** 21:30 **Harmailatik** 22:00 **Berriak** 22:30 **Errugbia** 23:00 **Harmailatik** 23:30 **Gaurkoak** 23:45 **Emisio amaiera**	13:20 **Baneki** 13:50 **Marrazki bizidunak:** 03 Patrulla 14:15 **Berriak Aurrerapena** 14:30 **Harmailatik** 15:00 **Errugbia** 15:30 **Berriak Aurrerapena** 15:45 **Klip@** 19:30 **Emisio hasiera** 19:35 **Gaurkoak** 19:45 **Klip@** 20:00 **Berriak** 20:30 **Marrazki bizidunak** 21:00 **Debarri** Antzuola 22:00 **Berriak** 22:30 **Debarri** Antzuola 23:30 **Gaurkoak** 23:45 **Emisio amaiera**	13:50 **Marrazki bizidunak:** Sherezade 14:10 **Marrazki bizidunak:** Lazkao Txiki 14:15 **Berriak Aurrerapena** 14:30 **Debarri** 15:30 **Berriak Aurrerapena** 15:45 **Klip@** 19:30 **Emisio hasiera** 19:35 **Gaurkoak** 19:45 **Klip@** 20:00 **Berriak** 20:30 **Marrazki bizidunak** 21:00 **Auñamendietan** Mendi madari katua-Anetora- 21:30 **Jaun ta jabe** 22:00 **Berriak** 22:30 **Auñamendietan** 23:00 **Jaun ta jabe** 23:30 **Gaurkoak** 23:45 **Emisio amaiera**	13:50 **Marrazki bizidunak:** 03 Patrulla 14:15 **Berriak Aurrerapena** 14:30 **Auñamendietan** 15:00 **Jaun ta jabe** 15:30 **Berriak Aurrerapena** 15:45 **Klip@** 19:35 **Gaurkoak** 19:45 **Klip@** 20:00 **Berriak** 20:30 **Marrazki bizidunak:** 03 Patrulla 21:00 **Baneki** 21:30 **Behazulo** 22:00 **Berriak** 22:30 **Auñamendietan** 23:00 **Behazulo** 23:30 **Gaurkoak** 23:45 **Emisio amaiera**
21:30 **Eguzki lore**	15:05 **Filma**	18:00 **Baneki**	21:30 **Harmailatik**	21:00 **Debarri**	21:00 **Auñamendietan**	21:30 **Behazulo**

GOIENA TELEBISTA / Posta elektronikoa: **goitb@goiena.com** • Telefonoa: **943 71 23 95**

LASAGABASTER

LASAGABASTER

www.lasagabaster.com

Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE • Tel.: 943 79 27 27 / 943 79 13 55

AURREMATRIKULAZIO EPEA
ekainaren 1etik 8ra

LANBIDE HEZIKETA
heziketa zikloak

ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK
- Ibilgailuen elektromekanika
- Kontsumorako ekipo elektronikoak
- Soldadura eta galdaragintza
- Mekanizazioa
- Erizaintzako zaintza osagarriak

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK
- Fundizioa eta pulbimetalurgia bidezko produkzioa
- Metal eraikuntzak

zure etorkizunerako
biderik onena

AENOR ER Empresa Registrada ER-0226/2/02

CERTIFIED IQNet MANAGEMENT SYSTEM

Etxebarri auzoa z/g
Tel.: 943 79 79 00
Faxa: 943 77 09 55
20550 ARETXABALETA
ia@iaretxabaleta.com
www.iaretxabaleta.com

HARATEGI HAUETAN SOILIK!

EUSKAL OKELA — CARNE DE VACUNO DEL PAIS VASCO — BAIMENDUTAKO HARATEGIA — EUSKO LABEL KALITATEA

ANTZUOLA
- Gabilondo Arregi harategia (A)
  Kalebarren 14

ARAMAIO
- Bixente L. Azpilikueta harategia (A)
  Bixente Goikoetxea plaza 8

ARRASATE
- Landaluze harategia (A)
  Iturriotz 7
- Jose Mari Salegi harategia (B)
  Olarte 20
- Azpilikueta harategia (A)
  Bañez doktorea 10
- Azpilikueta harategia (A)
  Erguin 12
- Kortaberri harategia (A)
  Antxo Abarka 1

BERGARA
- Andres Mujika harategia (A)
  Domingo Irala 5
- Bixain harategia (A)
  Azoka plaza 5-6 postuak
- Aldai harategia (B)
  Espoloia 12

ESKORIATZA
- Zubia harategia (B)
  Santa Ana 11

OÑATI
- Antxon harategia (A)
  San Lorentzo 5
- Tarsicio harategia (B)
  Portu 2
- Garai harategia (A)
  Maiatzaren Lehena plaza 2
- Super BM Oñati harategia (B)
  Olakua 8

(A) ARTISAUAK: Baimendua izateaz gain, Euskal Okelaren eta Eusko Labela daramaten beste produktu batzuekin konpromiso handiagoa duten haragiak.

(B) BAIMENDUAK: Euskal Okela saltzeko Hartegi Baimenduak.

Goienkaria ©
DEBAGOIENEKO ASTEKARIA

Argitaratzailea: Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 Arrasate
Egoitza nagusia: **BERGARA** 20570 Barrenkalea 33 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 76 92 71 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta-e: *goienkaria@goiena.com*
Ordezkaritzak: **Arrasate** 20500 Otalora Lizentziaduna 31 • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta-e: *arrasatepress@goiena.com*
Aretxabaleta 20550 Durana 11 • 151 posta-kutxa • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54 • Posta-e: *aretxagazeta@goiena.com*
Publizitatea: **Arrasate** 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 79 21 00 • Faxa: 943 79 22 93 • Posta-e: *publi@goiena.com*
Lege Gordailua: NA-3329/2000 • **ISSN:** 1577-1210 • **Tirada:** 18.935 ale • **Difusioa:** 17.680 ale.
HARPIDETZA: **943 79 21 00** • Posta-e: *harpidetza@goiena.com*

Goiena Komunikazio Zerbitzuak

OJD erakundeak ikuskatutako astekaria

EGUBAKOITZA, 2005eko apirilaren 22a

Atzeskua

OIHANA ELORTZA

Santiago Sarmiento/ Gurutze Gorrikoa

Noiztik diharduzu Elorregiko Gurutze Gorrian?

14 urte nituela hasi nintzen Gurutze Gorrian, boluntario gisa lehenengo eta lanean gero. Elorregiko postura duela bi urte pasatxo etorri nintzen. Aurretik, Ermua eta Eibarko eremuetako postuan egin dut lan.

Zer ikusi duzu bi urte hauetan?

Formazioaz, parte-hartzeaz eta boluntarioez arduratu izan naiz eta hiru atal horiek indartzen saiatu naiz denbora honetan.

Zer nolako emaitzak lortu dituzu?

Etorri nintzenean baino hobeto daude zerbitzuok, baina oraindik lan asko dugu egiteko.

Zenbat boluntario daude Debagoienean?

60. Ondo dago, baina gehiago behar ditugu.

Horretarako antolatu dituzue ikastaroak?

Bide bat dira, bai. Hiru antolatu ditugu: lehen sorospena, uretakoa eta geriatria ikastaroak. Maiatzean egingo ditugu, Arrasaten, eta edonorendako dira; ikasleendako, osasun arloko profesionalendako zein etxean adinekoak dituztenendako.

Noiztik egiten duzue lana Elorregiko postuan eta zenbat lagunek?

Duela 22 urte inguru zabaldu zuten postu hau, 1983an. Une honetan, hamar lagunek lan egiten dugu bertan.

Non egiten duzue lan?

Elorregikoa eskualdeko postua da, beraz, Debagoiena osorako egiten dugu lana. Bergaran, adibidez, bertan dute anbulantzia bat eta hura joaten da inguruko larrialdietara, baina gainerako herrietako zerbitzuetara joaten den lehen anbulantzia Elorregikoa da.

Zenbat anbulantzia dituzue?

Bi. Baita bederatzi lagunendako tokia duen egokitutako furgoneta bat eta 4x4 ibilgailu bat ere.

Zenbat arlotan egiten duzue lana?

Osasun eta gizarte arloan egiten dugu lana batetik. Baita 112 zerbitzuko deiak betetzen ere. AP-1 autobideko lan istripuetara ere geu joaten gara. Horrez gain, inguruan antolatzen dituzten ekintza guztietan gaude: kontzertuak, lasterketak, jaialdiak...

Hala ere, nazioarteko proiektu askotan ere parte hartzen dugu eta beharra duten familien artean ere janaria banatzen dugu urtero. Datorren maiatzaren 14an banatuko diegu Debagoieneko familiei.

Zenbat larrialdi dei jasotzen dituzue urtero?

Joan den urtean, 2004an, 1.369 dei jaso genituen. Guztiak, noski, ez ziren istripua gertatu zelako, baita osasun arazoak izan zituztelako ere.

Zer egin behar dugu istripu bat tokatzen zaigunean?

Ezer ez egin ziur ez bagaude. Horrekin batera, istripua gertatu den tokia babestu istripu gehiago ez sortzeko eta 112 zerbitzura deitu.

"Osasun eta gizarte arloan egiten dugu lan batetik, baina baita antolatutako ekitaldietan eta autobideko lanetan ere"

"Debagoiena osorako egiten dugu lan; 2004an 1.369 dei jaso genituen ibarretik"

"Maiatzerako antolatu ditugu ikastaroak Arrasaten eta edonorendako dira"

► *Ermua/ 32 urte / Elorregiko postuan dihardu*

PIPERRAUTSA

Gobernua

Egoera normalean bageunde bezala, hauteskundeak pasatu orduko gobernuaz hasi dira kinielak eta porrak. Arrasaten, goiz berean, aurkitu dut hobesten duenik EAJ-EA-PSE ardatza, 'beste horiek' ez dezaten izan ezer baldintzatzeko aukerarik; eta nahiago lukeena EAJ-EA-EHAK ardatza, 'beste horiek' irribarre asko baina konponbiderik ekarriko ez dutelako.

Ez gaude, ordea, egoera normalean. EAEko lege araudi nagusia, Estatutua, aldatzekotan da. Batetik, Madrilgo gobernuak aukera zabaldu duelako. Baina, nagusiki, Gasteizko legebiltzarraren gehiengoak nahi duelako. Horri erantsi behar zaio ETA ere prest agertu dela egoera berrira egokitzeko eta jardun armatua bertan behera uzteko. Honek guztiak aukera itzela ematen du euskaldunon egonezin historikoa konponbidean jartzeko.

Eta hori askoz inportanteagoa da, nork gobernatu erabakitzea baino. Egoera zail eta zirraragarri hau kudeatzeko denbora eta prozedura egokia behar dira. Ezin da ezer egin presaka eta arinkeriaz. Zatia egokiago litzateke ados jartzea bi gauzatan: aurreko hirukoa luzatzea urte betez edo biz, nahi bada Aralar gehituta, eta bitartean alderdien mahaia marko berria lantzen jartzea, eta dagokienak 'desmilitarizazioa' prestatzen.

Behin bi lan hauek burututa, orduan bai, etorriko lirateke erreferenduma eta gobernu egonkorra, hauteskunde berriak eginda edo gabe.

MIKEL IRIZAR
www.goiena.net/blogak/piperrautsa

OMU ZERAMIKAK
DEBAGOIENA

Bainu altzari eta osagaiak • Hidromasaje kabinak
Manparak • Eraikuntzako materiala

BILTEGIA/BULEGOAK: Meatzerreka 6 • Arrasate • 943 79 14 28 • Faxa.: 943 79 40 43
ERAKUSKETA: Ignacio Zuloaga 4 • Arrasate • 943 79 07 20